

BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA
2006KO JARDUEREN GAINEKO TXOSTENA

AURKIBIDEA

	Or.
1. Aurkezpena.....	4-5
2. Behatokia zer den.....	6-7
3. Kideak.....	8-12
4. Araubidezko garapena.....	13
5. Lan Planaren laburpena	14-16
6. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jarduerak	17-22
a. Osoko bilerak.....	17-18
i. 2006ko uztailaren 7ko bilera	
ii. 2006ko abenduaren 15eko bilera	
b. Lan taldeak.....	18-21
i. 2006ko maiatzaren 5eko bilera	
ii. 2006ko ekainaren 16ko bilera	
iii. 2006ko irailaren 15eko bilera	
c. Webgunea.....	22-24
d. Udal Harremanen Sarea.....	25-26
e. Baliabideen mapa.....	27-29
f. Informazio buletina.....	30-31
g. Europar Batasuneko zifrak.....	32-33
h. Bizkaiko Lurralde Historikoko zifrak.....	34-35
i. Laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan.....	36-37
j. Datuak biltzeko zailtasunen azterketa.....	38-40
k. Dokumentu-kudeatzailea.....	41-42
l. <i>Praktiken, ekimenen eta esperientzien gida, 2006</i>	43-45
m. Baliabideen atlasa.....	46-47
n. Kanpo harremanak.....	48
7. ERANSKINAK.....	
a. Behatokiko osoko bileren aktak	
b. Adierazleei buruzko Lan Taldearen bileren aktak	
c. Webgunea	
d. Baliabideen mapa	

- e. 1., 2. eta 3. buletinak
- f. “Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko zifrak Europar Batasunean. 2006”
- g. “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2005”
- h. “Indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2006”
- i. “Datuak biltzeko zailtasunen azterketaren txostena”
- j. Dokumentu-kudeatzailea
- k. *Praktiken, Ekimenen eta Esperientzien Gida, 2006*
- l. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren atlas, 2006

1. Aurkezpena



Dokumentu honetan zehar, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak aurrera eramandako jardueren gaineko txostena azaltzen dugu, erakundeak 2006an izandako jarduna erakuste aldera.

Txosten honetan kontuan harturiko aldia Behatokiarentzat beste pauso bat izan da erakunde gisa finkatzeko, erakundearen zeregin guztietan: genero indarkeriaren bilakaerari behatzen; tresna juridikoen aplikazioa jakinarazten; gizarte honetako gaitz horren kontra itxaropena pizten duten ekimen eta esperientzia horiek biltzen; Administrazioak zerbitzuen eta baliabideen arloan egiten duen eskaintzaren egoeraren berri ematen; jardunbide egokiak aditzera ematen; gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren muturreko agerpen horren iraupenaren aurrean jokatzeko erarik onenei buruz gogoeta egiten; sakonago ezagutzen Bizkaiko Lurralde Historikoan eskaintzen diren zerbitzu, tresna juridiko eta arau tresnak, bai eta erakundeetako prebalentziari buruzko zenbakizko datuak ere —hau da, Bizkaiko botere publikoen laguntza sarera jotzen duten etxeko indarkeria jasandako biktimei buruzko estatistikak—.

Gure eguneroko jardunaren oinarriak dira tratu txarrak jasandako emakumeei laguntzeko eskumenak dituzten pertsona eta erakundeek informazioa truka dezaten eta Behatokiarekin komunikazioan egon daitezen, erakundeen arteko lankidetzak, gomendioak eta orientatzeko jarraibideak ematea, eta sustaturiko ikerlanen emaitzak hedatzea.

Behatokia ahalegintzen da Bizkaian, etxe eremuan, emakumeen kontra egiten den indarkeriaren egiazko egoera ezagutzen, ikuspegi kualitatibo nahiz kuantitatibotik; horretarako, metodologia eraginkorra abian jarri nahi du lurraldeko Administrazioak genero indarkeriari aurre egiteko ezarri dituen zerbitzuek emandako datuak era uniformearen bil daitezen bermatzeko, datuok interpretatzeko, eta oinarritzko eskubideen urratzeak konpontzeko moduak proposatzeko.

Biktimei laguntza eta ingurukoei aholkua eskaintzen dizkieten zerbitzuak berraztertu eta handitu izana; tratu txarren aurka esku hartzeko ardura duten hainbat arloren artean izenpeturiko koordinazio protokoloak; beharrian zehar zein berriei erantzun zabalagoa ematen dieten programak abian jarri izana; harrera zentro gehiago ireki izana; baliabideak oinarritzko eskubide urratze horrek kaltetutako herritarren eskariei egokitu izana; erabiltzaileei buruestimua berreskuratzeko nahiz gizarteratzeko eta laneratzeko estrategiak eskaini izana; eta udalen bultzada, horra hor hainbat lorpen, gure eragingarri den xede bakar hura erdiestera garamatzan bidea zabaltzen dituztenak: berdinen gizartea, sexu bazterkeriarik gabekoa, erdiestera, alegia.

Horrelako gizartea ezin daiteke lor, baldin eta emakumeei ematen zaion tratu txar oro ezabatzen zeharo ahalegintzen ez bagara. Asmo handiko helburua? Ezin daiteke beste bat izan. Gure ikuspuntua ez da batere inuzentea. Jakin badakigu zein zailtasun dauden, baina ez dugu etsitzerik; aitzitik, erakundeen esparruan egitura soziopolitikoak eraldatzen ari direla aitortu behar dugu, hainbat kolektiboren parte-hartzeari esker, noski: ikerketaren edo hezkuntzaren alorretako pertsonen, emakume elkarteen, irabazi asmorik gabeko erakundeen eta abarren parte-hartzeari esker. Laburbilduz, amore ematen ez duten eta zerbait gehiago egin asmo duten herritar sentiberatuek parte hartzen dute horretan.

Hala eta guztiz ere, erakundeok, gure eskumenen esparruari dagokionez, ezin gara bertan goxo gelditu, eta ezin ditugu aurrerapenak handietsi (azken batean, aurrerapen xumeak izango dira, lesioak, heriotzak, bazterkeria eta desberdintasuna dauden bitartean), jakinda bidea bihurria dela, eta indarkeriaren arazoa bukarazteko ikuspegi integral bat dela, prebentzioa, atzematea eta laguntza bateratuz eta legea hertsiki aplikatuz, Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoan nahiz Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarrita dagoenez.

Juan María Aburto Rike

*Bizkaiko Gizarte Indarkeriaren Behatokiko lehendakaria
Gizarte Ekintzako foru diputatua*

2. Behatokia zer den

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia —2003ko martxoaren 18ko 53/2003 Foru Dekretuaren bidez sortua eta, osaerarik dagokionez, 2004ko azaroaren 9ko 188/2004 Foru Dekretuaren bidez aldatua— aholku organoa da, eta informazio sistema bat eratzea du xedetzat. Sistema horrek ahalmena izan behar du Bizkaiko Lurralde Historikoan den emakumeen aurkako indarkeriako egoerak zaintzeko eta haien jarraipena egiteko, bai eta tratatu txarren arloan abian jarritako erakunde politiken eraginaren jarraipena egiteko ere, politika horiek garatu eta ezartzeari nahiz dagokion herritarrengan dituzten eraginei dagokienez, eskura dauden baliabideak egiazko beharrezanez egokitzearen.

Behatokia bi helburu nagusi zituela sortu zen:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan, emakumeen aurkako indarkeriaren egiazko egoera ezagutzea, bai eta haren bilakaera ere, gertatzen diren aldaketak aztertze aldera.
2. Gomendioak eta proposamenak egitea, Bizkaian genero indarkeriaren alorrean eragina duten zerbitzu eta laguntzen eskaintza hobe dadin sustatze aldera.

Behatokiak hainbat eginkizun bete behar ditu:

1. Bizkaiko Lurralde Historikoan gertatzen diren genero indarkeriako egoerei buruzko datuak integratzeko informatika aplikazio bat diseinatu, abian jarri eta mantentzea.
2. Genero indarkeriako egoeretan laguntza emateko arlo guztietan den informazioa bildu eta aztertzeko organo iraunkor gisa jardutea.
3. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko zerbitzuek baliatzen dituzten adierazle eta informazio sistemak hobetzeko gomendio eta proposamenak egitea.
4. Antzeko beste erakunde batzuetan parte hartzea eta haiekin harremanetan egotea. Beste administrazio batzuetan abian jarritako eta planteatutako esperientzia eta erreformen berri izatea.
5. Genero indarkeriako egoeren hedakuntza eta bilakaera diagnostikatu eta balioztatzeko azterlan eta txosten teknikoak taxutzeko proposamenak egitea.
6. Genero indarkeria jasan duten emakumeentzako neurri integralen egokitasuna aztertzea, haien ondorio eta eraginak ikertuz eta jardunbide egokien adibideei behatuz.
7. Gomendioak eta proposamenak egitea, Bizkaian genero indarkeriaren alorrean eragina duten baliabideen eskaintza hobe dadin sustatze aldera.
8. Trukerako eta komunikazirako foru bat eratzea, genero indarkeriaren esparruan diharduten ikerketa taldeen ikertze eta aztertze lanak errazago bihurtze aldera.
9. Urteko txostena taxutzea Behatokiak aurrera eramandako jardueren gainean, eta horren berri eman Bizkaiko Batzar Nagusiei.

10. Behatokiaren beraren antolamendu eta funtzionamendu arautegia idaztea.

3. Kideak

Behatokian bilduta daude Bizkaiko Lurralde Historikoan, zeinek bere esku-hartze alorretik, emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzari erantzun koordinatua eman nahi dioten erakunde eta elkarte guztien ordezkariak.

Erakundeetako langileekin eta elkarteen mugimenduekin zuzenean harremanetan egonik, Behatokiak rol aktiboa joka dezake etxeko eta familia barruko indarkeria jasaten dutenentzako laguntza hobeto koordinatzeko diren tresnak hedatzen.

Behatokia osatzen duten erakunde batzuek beste ordezkari batzuk izendatu dituzte 2006. urtean zehar; hala, ekitaldia bukatzean honela geratu da organoko osoko batzarra:

LEHENDAKARITZA

Gizarte Ekintzako foru diputatua:
Juan María Aburto Rike

LEHENDAKARIORETZA

Umeen Emakumeen eta Pertsona Ezinduen Zuzendaritza Nagusia:
Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano, Saileko zuzendari nagusia
Ordezkoa: Jon Andoni Rekagorri Barrenetxea, Plangintza, Azterlan eta Ikuskapenen zuzendari nagusia

IDAZKARITZA

Umeen, Emakumeen eta Pertsona Ezinduen Zuzendaritza Nagusia:
Berta Díaz Arbesú, Emakumearen Ataleko burua
Ordezkoa: Amaia Antxustegi Ziarda, Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria

BATZARKIDEAK

Bizkaiko Foru Aldundia

-  Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila:
María Dolores Menchaca Araluce, Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuko burua
Ordezkoa: Elena Iturrizaga Larrabeiti, Plangintza eta Azterlanen Zerbitzuko burua

Gizarte Ekintza Sailari dagokio, Foru Aldundiaren zuzendaritzapean, indarrean den ordenamendu juridikoak Bizkaiko Foru Aldundiari gizarte zerbitzuen alorrean aitortu dizkion eskumenak baliatzea. Hori egin dezake bai eskumenak zuzeneko modu juridikoan eta positiboan esleituta, bai beste Administrazio Publiko batzuei atxikitako eginkizun eta zerbitzuak eskualdatzean zeharka esleituta.

-  Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazio Saila:
Anselmo Ardanza Sustatxa, Funtzio Publikoko zuzendariordea
Ordezkoa: Amaia Beaskoetxea Madariaga

Foru Aldundiko Herri Administrazio Sailak eskumenak ditu Foru Aldundiko langile publikoen erregimen juridikoan, Foru Aldundiko Sail guztien interesekoak diren zerbitzu eta jardueretan, barne komunikazioan, erakundeen arteko koordinazioan, eta Foru Aldundiak beste sail batzuei berariaz esleitu ez dion beste edozein arlotan.

-  Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Saila:
Arantza Ciria Uriarte, Ekonomi Azpiegitura Zerbitzuko burua
Ordezkoa: Iñaki Orrantia Martínez, goi teknikaria

Lan eta Trebakuntza Sailari honako jarduera eremu hauek dagozkio: Bizkaian enplegua sustatzea; enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea bultzatzea; kolektibo babesgabeentzako enplegua sustatzea; Bizkaiko langabeak gizarteratzeko eta laneratzeko prestakuntza, eta pertsona horien gaitasun eta ahalmenen hobekuntza; kolektibo baztertuetako pertsonak prestatzea; enplegua lagungarriak diren industria eta turismo azpiegiturak garatzea; prestakuntzaren eta lanaren arloan lan egiten duten beste Administrazio eta eragile batzuekin komunikazioan egotea eta koordinatzea.

-  Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldun Nagusiaren Kabinetea:
Pilar Dosal Pérez, Genero Politiketarako idazkari nagusi teknikoa
Ordezkoa: María Susana Ayo Vidaurrezaga, Genero Politiketarako Arloko teknikaria

Ahaldun Nagusiaren Kabinetea, 2003ko uztailaren 2ko 274/2003 Foru Dekretuaren bidez sortua, ahaldun nagusiari laguntzeko organoa da, eta zuzenean haren mende dago. Kabineteko Idazkaritza Nagusi Teknikoaren Genero Politiketarako Arloa zeregina da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, programatu, haien inguruan aholkatu eta politikak berak balioztatzea.

Eusko Jaurlaritza

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea:

Miren Arantza Madariaga Aberasturi, Idazkari Nagusia

Ordezkoa: Ander Bergara Sautua, Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitzeko eta Desagerrarazteko Programen arduraduna

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Idazkaritzari atxikitako erakunde publikoa da, gizarteko, politikako, ekonomiako eta kulturako arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lortzeko lan egin dezan sortua. Gure erkidegoan sexua dela eta gertatzen diren bazterkeria eta desberdintasun egoerak aztertzeko eta, horretan oinarriturik, neurri zuzentzaileak bultzatzeko tresna da.

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila:

Javier Inda Ortiz de Zárate, Segurtasun Kabineteko zuzendaria

Ordezkoa: José M.^a Gaona Fernández, Saileko teknikaria

2005ko ekainaren 25eko 8/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jarduera eremu hauek ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzaintza; hauteskunde administrazioa; Herri Babesa; autonomia erkidegoko errepideetako ibilgailu zirkulaziorako polizia; jokia, posturak eta ikuskizunak; transmisioak eta komunikazioak; poliziaren ibilgailuak; Sailari atxikitako erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera; legeek eta arautegiek emandako gainerako ahalmenak, hori gertatzen denean.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila:

Kontxi Gabantxo Laka, Saileko Aholkularia

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari hauek dagozkio:

a) Aginte Judizialarekiko harremanez arduratzea; b) Justizia Administrazioaren jardunerako baliabideak jartzea; c) espetxeak, bereziki, haien antolaera, jardura eta espetxe legedia betetzea, espetxe administrazioako organo nagusiei legeek ematen dizkieten eskumenak bere eginda; d) notarioak eta jabego-administratzaileak izendatzea; e) elkarte, fundazio eta elkargo profesionalen buruzko erregimen orokorra, sailek beren eremuaren barruan halakoekin dituzten harremanei, izanez gero, eragin gabe; f) Giza Eskubideak sustatzea; g) Justizia Administrazioan, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legean (1982ko azaroaren 24koa) herritarrei aitortzen zaizkien eskubideak erabili ahal izan daitezen bermatzea; h) lan arloari buruzko legeek lan harremanei buruz ezarritakoa gauzatzea; i) enplegurako eta lanpostuari egokitzeko politika; j) gizarte ekonomia: kooperatibak eta lan sozietate anonimoak; k) gizarte bazterketaren aurkako jarduna; l) familia babestea (familia eta lana bateratzea); m) Gizarte Segurantzako zerbitzuak zuzendu, antolatu eta administratzea eta haren erregimen ekonomikoa kudeatzea, eta gizarte aurreikuspena; n) laneko arriskuei aurrea hartzea; o) Sailari atxikitako erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera; p) legeek eta arautegiek emandako gainerako ahalmenak, hori gertatzen denean.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila:

Carmen Vicioso Etxebarria, Gizarte Ongizateko zuzendaria

Ordezkoa: Isabel Paredes Zabala, Saileko teknikaria

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailari honako zeregin eta jardura eremu hauek dagozkio: a) lurra eta hirigintza; b) etxebizitza; c) arkitektura, eraikuntza, jasangarritasuna eta kalitatea eraikuntzan; d) irisgarritasuna sustatzea; e) garapenean laguntzea; f) boluntariora; g) Gizarte Ongizatea eta gizarte zerbitzuak; h) familia bitartekotza; i) haurrak; j) afektu eta sexu askatasuna errazteko bideak sustatzea; k) Immigrazioa; l) droga mendekotasunak; n) Sailari atxikitako erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko eta sozietate publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera; o) legeek eta arautegiek emandako gainerako ahalmenak, hori gertatzen denean.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak

 Abadiñoko Udala:
Arantza Aramburu Derteano, zinegotzia

 Berangoko Udala:
Miren Dobaran Urrutia, alkatea

 Ermuko Udala:
Natividad Alonso Estalayo, zinegotzia

Ordezkoak:

Basauriko Udala:
Nekane Etxebarria Miranda, zinegotzia
Arantza Osorno Álvarez, zinegotzia

Galdakaoko Udala:
Meritxell Elguezabal Intxaurreaga, zinegotzia

Behatokia sortzeko dekretuak (53/2003 Foru Dekretua) EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteari ematen dio Behatokiko Osoko Batzarrean parte hartuko duten Bizkaiko hiru udalerri eta mankomunitateetako ordezkariak izendatzeko ahalmena.

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea da Etxeko Tratu Txarrak eta Sexu Erasoak jasaten dituzten Emakumeei Laguntza Hobearen Emateko Erakunde arteko Hitzarmena sinatu duten erakundeetako bat, eta, era berean, hitzarmen horren jarraipen batzordeko kidea da.

Ia Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek osatzen dute EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea, eta, hala, gainerako erakundeetako komunikazio bide baliozko eta eraginkorra da politika publikoak koordinatu eta adostekoan.

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte eta erakundeak

~ Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Politiketarako Arloaren eskutik eraturiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Foroaren ordezkari gisa:

ACAMBI-BULARREKO MINBIZIAREN BIZKAIKO ELKARTEA.

M.^a José Temiño

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroa aholku foroa da, eta han Bizkaiko Lurralde Historikoko emakume kolektiboek eginiko proposamenak sartzen dira; horrez gain, foroaren bidez mekanismo dinamikoak ezar daitezke Emakumeen eta Gizonen arteko aukera berdintasunerako Foru Planaren nahiz genero politiken jarraipena egiteko.

~ Genero indarkeriaren alorretik:

ARGITAN–Emakumearentzako Aholku Zentroa

Blanca Pangua Bedia, lehendakaria

Ordezkoa: Karmele Ozaita Andrés, diruzaina

ARGITAN Emakumearentzako Aholku Zentroa 1996ko martxoaz geroztik ari da funtzionatzen. ARGITAN zentroaren helburua da desberdintasuna, bazterkeria edo indarkeria sexista —halakoez izaten dituzten moduetako edozeinetan— jasaten duten emakumeen beharrezanez erantzutea.

Eginkizun hori betetzeko hainbat bide baliatzen dira, funtsean: Lan eta Lege Aholkularitza; psikologo eta sexologoek laguntza; gizarte arloko aholkularitza, eta, generoaren ikuspegitik, askotariko gairi loturiko jarduerak (lantegiak, ikastaroak, hitzaldiak, debateak), salatze, aldarrikatzeko eta kontzientziatzeko lanaz gain.

~ Genero indarkeriaren alorretik:

AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua.

Marta Dolado Galíndez, lege aholkularia

Ordezkoa: Ana Fernández de Garayalde Ulacia, soziologoa

Auzolan Laguntza Psikosozialeko Moduluak irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta 1982az geroztik osasun mailak hobetzen lan egiten du, osasunaren ikuspegi bio-psiko-sozialetik, hain zuzen.

Zerbitzu hauek ematen ditu: laguntza psikologikoa; lege aholkularitza, heldu, haur eta gazteen osasun mentala; ugaltze osasuna; alkoholismoa eta toxikomaniak.

4. Araubidezko garapena

Behatokiaren jarduerari lotutako arauak taxutu eta onartzeari dagokionez, 2005. urtean antolaerari buruzko xedapen hau onartu zen:

 5.016/2005 FORU AGINDUA, 2005eko apirilaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arautegia onartzekoa.

Agindu hori, bada, lehenago onarturiko xedapenei gehitzen zaie:

 53/2003 FORU DEKRETUA, 2003ko martxoaren 18koa, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzekoa.

 188/2004 FORU DEKRETUA, 2004ko azaroaren 9a, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia sortzeko 53/2003 Foru Dekretua, 2003ko martxoaren 18koa, aldaraztekoa.

5. Lan Planaren laburpena

Behatokiaren jardunaren esparrua Lan Plana da. Plana 2004ko uztailaren 25ean aurkeztu zen, eta osoko batzarrak urte bereko urriaren 22an berretsi zuen.

Behatokiak 2006an aurrera eraman dituen jarduerak bi taldetan sailkatuta daude, haien izaerarekin bat:

ALDIAN BEHINGO JARDUERAK

Izenburu honen azpian hauek sartzen dira: osoko bilerak; lan taldeen bilerak; urteko txostena egitea; direktorioa eguneratzea; kanpo harremanez arduratzea; dokumentatzeko eta informazioa biltzeko lanak.

Behatokiak, bere antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arautegian ezarritakoari jarraituz, bi aldiz egin du osoko bilera 2006. urtean, arrazoi hauek zirela eta:

- Batzarreko kideei 2005eko jardueren gaineko txostena ezagutaraztea eta onartzea (egindako kudeaketa aztertzea).
- ekitaldian zehar, helburuak betetzean, garatutako produktuen baliozkotasuna baieztatzea (ekitaldiaren balantzeari buruzko osoko bilera).

Behatokia lan taldeetan oinarritutako metodologia baten arabera antolatzen da, eta, 2004an osoko batzarrak egin zuen azken bileran onartuta, 2005ean abian jarri zen genero indarkeriaren adierazleei buruzko lan talde bat. Talde horrek jardunean jarraitu du 2006ko ekitaldian.

Behatokiaren kudeaketaren beste alderdi bat izanik, etengabe aurrera eramaten dira dokumentatzeko eta komunikatzeko eginkizunak, haien euskarria webgunea dela. Hori indartu egin da aldi honetan, genero indarkeriari buruzko dokumentu interesgarrien bidez eta urteko txostenaren nahiz Behatokiaren barruan sortutako dokumentuen bidez.

HELBURUAK BETETZEKO BEREZKO JARDUERAK

Atal honetan honako hauek ditugu: Udal Harremanen Sarea mantentzea; webguneko atalak zabaltzea; Baliabideen Mapa etengabe berritzea; Behatokiaren informazio buletina taxutu eta banatzea; Bizkaiko Lurralde Historikoan, indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak biltzen dituen dokumentua taxutzea; Bizkaiko Lurralde Historikoko laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideen laburpen dokumentua eguneratzea. Zeregin horiei, 2006an gehitu zaie, bi tresna berri eratzearekin batera (dokumentu-kudeatzailea eta Baliabideen Atlas), Genero Indarkeriaren aurkako Praktiken, Ekimenen eta Esperientzien Gida (2006) idaztea.

Aurreko urteetan, 2004an eta 2005ean hain zuzen, 2006. urtean zehar Behatokiak informazio sistema hobetzen tinko jarraitu du, berrikuntza teknikoak sartuz, zeinak eraginkortasuna areagotzen lagungarriak izan baitira, bai datuak biltzean bai emaitzak hedatzean.

Horrekin bat, eguneratzen dira etengabe, bada, Behatokiak sortzen dituen dokumentuak:

- “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak (2004, 2005)”
- “Indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak (2005, 2006)”
- Urteko txostenak (2004, 2005)

Berritze sistematiko horren ondorioak, gainera, organoaren beraren webgunean diren tresnetara iraultzen dira. Hona hemen tresnok:

- ❑ Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlas
- ❑ Genero indarkeriaren arloko Baliabideen Mapa
- ❑ Dokumentu-kudeatzailea

“Indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak” dokumentuak eta **Genero Indarkeriaren Arloko Baliabideen Mapa** eta **Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlas** tresnek informazio eguneratua ematen dute Bizkaiko udalerri bakoitzaren gainean; hala, indarkeriaren aurka espezializaturiko baliabideen informazioaz gain, gizarte arloari, poliziar, justiziar, eta elkarteei loturiko baliabideen berri ere ematen da, eta, horrez gain, udalen esparruan berdintasunaren alde edo indarkeriaren kontra aurrera garatutako tresna programatikoen gaineko informazioa ere ematen da.

Informazioa hedatzeari dagokionez, Behatokiaren informazio tresna *BGIB Buletina*, alegia, aldian behin editatzen jarraitu da. 2006an hiru zenbaki argitaratu ziren: 1. zenbakia, maiatzean; 2. zenbakia, urrian; eta 3. zenbakia, abenduan.

Behatokiak, halaber, ez dio informazioa biltzeari utzi indarkeria jasan duten emakumeen emandako laguntzari buruz, eta urtero bezala berritu egin da “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan” txostena, gizarte babesaren, poliziaren eta justiziaren arloan emakumeen laguntza ematen parte hartzen duten erakundeek eskuraturiko datuak kontuan hartuta.

Webgunea indartzeko saioa egin da 2006. urtean zehar, 2005ean bezala, informazioa jendarteratzeko tresna gisa duen kalitatea dela eta. Horretarako, edukiak modernizatu egin dira, justiziaren, programen edo dokumentuen aldetik agertzen zen tresna oro sartu baita, eta webgunean bertan beste zerbitzu batzuk ostatzeko tokiak ezarri dira: **Dokumentu-kudeatzailea** eta **Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlasa**.

6. Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren jarduerak

a. Osoko bilerak

Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arautegiarekin bat, Behatokiko osoko batzarrak urtean bi aldiz egiten ditu bilera arruntak, eta bilera bereziak, lehendakariak haietara deitu beste aldiz, lehendakariaren ekimenez edo, gutxienez, batzarkideen heren batek eskatuta.

Behatokiak osoko bilera bi egin ditu 2006. urteko ekitaldian:

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
						7					15

- **2006ko uztailaren 7ko bilera**

Bilera hartan, Behatokiaren 2005eko Jardueren Gaineko Txostena aurkeztu eta berretsi zen, “Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlas, 2006” ontzat jo zen, eta Bermeoko lege aholkularitzako zerbitzuaren datuak “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak (2004)” dokumentuan aldatzea erabaki zen.

Horrez gain, Adierazleei buruzko Lan Taldearen jardueren berri eman zen.

- **2006ko abenduaren 15eko bilera**

Ekitaldian garaturiko produktuak aurkeztu ziren: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlas; Dokumentu-kudeatzailea; “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak (2005)” dokumentua, eta *Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida* eta *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria: Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak* argitalpenak. Azken horretan, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak egindako makroinkesta baten datuak biltzen dira.

Adierazleei buruzko Lan Taldearen funtzionamenduari buruzko informazioa eman zen.

“Emakumeen aurkako etxe eremuko indarkeriaren gaineko kanpainak optimizatzea Bizkaiko Lurralde Historikoan” Behatokiak ondutako azterlana aurkeztu zen.

Halaber, Gizarte Ekintzako Sailaren 2007rako, emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean, aurrekontu programa ezagutzero eman zen.

Bileran hartutako erabakiei dagokienez, Baliabideen Atlasa Behatokiaren webgunean argitara ematea onartzea eta Behatokiaren webgunearen erabilerari buruzko kontsulta helaraztea erabaki zen.

b. Adierazleei buruzko Lan Taldea

Behatokiko Osoko Batzarrak Adierazleei buruzko Lan Taldea eratzea onartu zuen 2004ko urriaren 22an.

Taldearen xedea da, homologagarria eta denboran konparagarria den oinarri batekin, datu zehatz eta fidagarriak eskuratzeko adierazleak definitzea, etxe eremuko emakumeen aurkako indarkeriaren norainokoa eta ezaugarriak ezagutzearen

Honako erakunde eta pertsonak osatzen dute Adierazleei buruzko Lan Taldea:

 Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte ekintza Saila:

Berta Díaz Arbesú, Emakumearen Ataleko burua

Ordezkoa: *María Dolores Menchaca Araluce*, Emakume eta Familiarentzako Zerbitzuko burua

 Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Saila:

Ignacio Orrantia Martínez, Industri Azpiegiturako eta Azpiegitura Estrategikoetarako Ataleko goi teknikaria

 Bizkaiko Foru Aldundiko Ahalduen Nagusiaren Kabinetea:

María Susana Ayo Vidaurreazaga, Genero Politiketarako Arloko teknikaria

 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea:

Raquel Raposo Acevedo, Programak bultzatzeko arduraduna

Ordezkoa: *Pilar Lasso Sevilla*, Programetako arduraduna

 Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila:

Marimar Rueda Fernández, Estatistika Arloko burua

Ordezkoa: *José Luis Yanguas Pérez*, Estatistika Arloko teknikaria

 Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila:

Kontxi Gabantxo Laka, Saileko Aholkularia

 Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila:

Isabel Paredes Zabala, Teknikaria

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak

Bilboko Udala

Maite Mateos González, Emakumearen Zerbitzuko Gizartegintza Negoziatuko burua

Ordezkoa: Nerea Llantada, Gernika-Lumoko Udaleko Berdintasuneko teknikaria

Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarte eta erakundeak

ARGITAN–Emakumearentzako Aholku Zentroa

Karmele Ozaita Andrés, diruzaina

Ordezkoa: *Blanca Pangua Bedia*, lehendakaria

AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua:

Marta Dolado Galíndez, abokatua

Ordezkoa: Miren Edurne Fernández Arias, abokatua

Adierazleei buruzko Lan Taldeak hiru bilera egin ditu 2006an: hiru lan bilera Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailaren bulegoetan, Behatokiaren egoitzan, hain zuzen.

URT.	OTS.	MAR.	API.	MAI.	EKA.	UZT.	ABU.	IRA.	URR.	AZA.	ABE.
				5	16			15			

- **2006ko maiatzaren 5eko bilera**

2006. urteko lehen bileran (hirugarrena zen Adierazleei buruzko Lan Taldearen bilerak egiten hasi zirenetik), Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak lan egutegiaren eta azterlanaren ikuspegiaren inguruan zehaztutakoa sartu ondoren, Adierazleei buruzko Lan Taldearen Lan Plana onartu zen.

Behatokiko Idazkari teknikoak azalduta, Bizkaiko Lurralde Historikoan datuak biltzeko diren sistemen berri eman zen.

Talde horretako kideei “Gizarte zerbitzuen alorrean informazioa biltzeko fitxaren eredua”—edo, beste izen batez, “Tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzako laguntzei buruzko erregistro erkideen fitxa”— proposamena aurkeztu zitzaion.

Honako hauek erabaki ziren: materialak biltzeko egun bat finkatzea erabaki zen, jasotzeko, tratatzeko eta berriz bidaltzeko egokia, hots, bilera aurreko zeregin horietarako egokia; bileran ez zeuden erakundearen ordezkariak [Isabel Paredes (Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila), Karmele Ozaita (ARGITAN–Emakumearentzako Aholku Zentroa) eta Nerea Llantada (Gernikako Udala-

EUDEL, ordezkoa)] dagokion dosierra igortzea; dei batera deitzea Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak gizarte diagnostiko eta esku-hartzerako tresnaren erakustaldia egin dezan (Eusko Jaurlaritzaren eraikinean —Kale Nagusia, 25—, maiatzaren 9an, 10:00etan); Lan Taldeko ordezkariak ekarritako materialak tratatzen ahalegintzea, Behatokiaren webgunean argitaratzeko moduko lehen datu emanaldi bat ateratze aldera; Marta Doladok eta Maite Mateosek datuak biltzeko fitxa berraztertzea, eta aldatzeko proposamenak Behatokiako idazkari teknikoari astebeteko epean bidaltzea, haiek Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari aurkeztearren jarraipen batzordeari laguntza emateko talde teknikoko Gizarte Zerbitzuetako Azpibatzaordearen bileran.

- **2006ko ekainaren 16ko bilera**

Bilera horretan, Gizarte zerbitzuen alorrean etxeko tratu txarren kasuei buruzko informazioa biltzeko eredia Hedatzeko Planerako proposamen bat aurkeztu zen, eta “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak (2005)” dokumentuaren inguruan eztabaidatu zen.

Adostasunez, honako hauek erabaki ziren; “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak (2005)” txostena egiteko aintzat hartutako adierazleen artean udalerraren aldagaia sartzea; dokumentu horretarako datuak biltzeko fasean aurkituriko zailtasunak aztertzea; dokumentua Eudeli bidaltzea, Berdinsareko batzaordeak informazioa lortzeko prozesutik eratorritako arazoak aztertzea; eta adierazle egokiagoen hautapen baterako proposamen bat taxutzea, “Gizarte zerbitzuen alorrean etxeko tratu txarren kasuei buruzko informazioa biltzeko eredu”an informazioa biltzeko iradokitzen den sailkapenarekin bat etortzeko.

- **2006ko irailaren 15eko bilera**

Bilera hartan erabaki zen Lan Taldean parte hartzen duten erakundeek Behatokiari bidal diezazkioten bai “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak (2005)” dokumentua hobetzeko gomendioak bai “Gizarte zerbitzuen alorrean etxeko tratu txarren kasuei buruzko informazioa biltzeko ereduari loturiko adierazle hautapen baterako proposamena” dokumenturako alegazioak, epemugatzat urriaren 9a jarrita, eta, gero, ekarpen horiek hamar eguneko epean sar zitezen.

Era berean, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak (2005)” dokumentuari gehitutako datuak berraztertu eta txertatzea erabaki zen, bai eta atal bat —sarrera gisako laburpen bat, idaztea— datu garrantzitsuenak aditzera ematearren, eta, behar zuten dosierraren ataletan. 2004. eta 2005. urteak erkatzeko taulak sartzea ere.

Bestalde, gizarte zerbitzuetan tratu txarrak jasan duten emakumeei emandako laguntzari buruzko datuak eskatu eta biltzeko prozesua sei hilean behin egiteko komenigarritasuna eztabaidatu zen.

Halaber, “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak (2005)” dokumentuko datuen balioztapena atzerago egitea gomendatu zen, txostena bukatu arte.

Beste erabaki bat izan zen Europar Batasuneko herrialdeetako datuak lortzea tratatu txarrak jasandako emakumeen inguruan, bai eta erailketa egin eta gero beren buruaz beste egindako erasotzaileen inguruan ere.

c. Webgunea

Abian jarri zenetik, 2004. urtetik, alegia, Behatokiak badu webgunea bat, sarbidea Gizarte Ekintza Sailaren web orrian duena, Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunearen barruan:

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_index.html

http://www.bizkaia.net/gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_index.html

Gune elektroniko horren helburu nagusiak izan ziren genero indarkeriaren inguruko informazioa helaraztea; lan tresnak diseinatu, eguneratu eta hedatzea; eta Behatokiaren eta harekin komunikazioan dauden erakundeen arteko harremanak eta ideia eta dokumentu trukea bideratzea.

Hala, 2006an ere jarraitu da webgunearen tresna informazioa zabaltzeko bitarteko gisa. Webgunean gaztelaniaz nahiz euskaraz erabil daiteke, eta 2005ean zituen atalei eutsi dio, sendo zitezen; halaber, eduki gehiago sartu du, atal berriak abian jarrita.

Webgunek hamabost sarrera ditu, eta haietako zortzi edukia edo testua duten sarrerek dira:

- Definizioa: Behatokiaren aurkezpena; aurrekariak; helburuak; zereginak.
- Kideak: Behatokia osatzen duten pertsonen zerrenda, zer kargu duten eta zer erakundetatik datozen adierazita.
- Bilerak: egutegia, eta osoko bileren ondorioz sorturiko dokumentuak.
 - ❑ Dokumentuak: protokoloak, legedia, nazioarteko baliabideak, azterketak eta gidak eta Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak (BGIB) berak sorturiko dokumentazioa gaitzat dituzten dokumentuak. Azken azpiatal hori ezarri da Behatokiaren jardunaren ondorioz sortzen diren dokumentuak bildu eta zabaltzeko:
 - ❑ Behatokiaren Lan Plana (2004-2008)
 - ❑ Antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arautegia
 - ❑ “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2004” dosierra
 - ❑ Jardueren gaineko txostena (2004 eta 2005)
 - ❑ “Indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan” (2005 eta 2006); txostenean Foru Aldundiak kudeatzen dituen zerbitzuak zein udal eta mankomunitateek administratzen dituztenak jasotzen dira.

- ❑ *Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria: Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako ikerketa baten emaitzak*, 2006 argitalpena.
- ❑ *Genero Indarkeriaren aurkako Praktiken, Ekimenen eta Esperientzien Gida*, 2006 argitalpena.
- Loturak: Behatokia osatzen duten erakundeek, beste erakunde batzuen, antzeko beste behatoki batzuen, eta erakunde, programa eta proiektuen webguneetara jotzeko hainbat esteka.
- Baliabideen atlasak: mapa multzo baten bitartez, indarkeria jasan duten emakumeentzat Bizkaiko Lurralde Historikoan diren laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideei buruzko informazioa erakusten da.
- Dokumentu-kudeatzailea: datu base honetan udalen berdintasunerako planak, udal programak, udal protokoloak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan aplikagarria den legedia daude jasota.
Adierazleak: bi atal ditu Lan taldea eta Zifrak.
Lehen atalean, **Lan Taldea** delakoan, taldeko kideen zerrenda ematen da, zein kargu duten eta zein erakundetatik datozen adierazita, ageri da, taldearen egutegiarekin eta bileren ondorioz sorturiko dokumentuekin batera. Bestalde, **Zifrak** delako atalean, 2004ko eta 2005eko “Indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan” dokumentua dago; dokumentu hori urtero eguneratzen da.
- Baliabideen mapa: Bizkaian genero indarkeriaren aurka diharduten zerbitzu, erakunde eta elkarteak, eta probintziako toki erakundeek abian jarritako baliabideen deskribapena, udalerria bakoitzaren programazioari dagokionez (berdintasunerako planak, indarkeriaren aurkako planak, jarduteko planak). Atal horretan bada **baliabideen bilatzailea** deritzon azpiatal bat, bilaketak egiteko hiru aukera ematen dituena.
- Buletina: hasierako orrian izan ezik, webgunearen barruko orrialde guztietatik Behatokiaren komunikazio butelinean, sar daiteke. Buletina aldizkako argitalpen elektronikoa da. Lehenik, Buletinaren azken zenbakirako sarbidea ematen da; historiaren bidez, gainera, badago aurreko zenbakietan sartzea.
- Hizkuntza: webgunean nabigatzen den bitartean euskaratik gaztelaniara eta alderantziz aldatzeko aukera ematen du.
- Harremana.
- Buzoia.
- Irisgarritasuna.
- Web mapa.

Behatokiak nahi du —funtzio bestelakotasuna edo hesi teknologikoak direla medio— informazioa eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonen batez ere erabilgarria den tresna bat izan dezaten, unean uneko baldintza teknologikoetan, linean den informaziora sarbidea izan nahiz informazioa kudeatzeko berdintasuna sustatu eta bermatuko dien tresna bat, alegia.

Sarbide hori ziurtatze aldera, orri guztiak WAIren (Web Accessibility Initiative) gomendioei jarraituz egiaztatu dira

d. Udal Harremanen Sarea

Sarearen xedea da herri edo hiri bakoitzean giltzarri diren harremankideak identifikatu eta haiekin harremanak ezarri eta mantentzea, datuak eta komunikazio bidea izatearren informazioa kudeatzean.

2006. urtean, Behatokiak 2004an eta 2005ean izan zuen aurreko jardunari jarraitu dio. Hala, bada, Bizkaiko 112 udalerrietan giltzarri diren informatzaileak identifikatu eta gero, harremanen sareari dagokienez aurrera eraman diren lanak izan dira bai Behatokiak toki erakunde eta mankomunitateei datuak eta informazioak eskatzea bai haiek eskatutakoari erantzutea.

Behatokiari emandako informazioa, zeinak udalerri mailan ematen diren balibideen erabilgarritasuna, ezaugarriak eta erabileraren maiztasuna jasotzen baitzituen, lagungarri gertatu da “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Gizarte babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak” eta “Indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideak Bizkaiko Lurralde Historikoan: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideak” dokumentuak, Behatokiko webgunean argitaratuak, etengabe eguneratzeko, **Genero Indarkeriaren Arloko Baliabideen Mapa** tresna berrazteratzeko, eta tresna berri bat sortzeko, **Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlas**a, bi tresnak ere webgunean daudela.

Jakina da Buletinaren zereginetako bat dela sareari informazioa eskuratzea; aldi berean, webgunea etengabe hobetu eta eguneratzeko erabiltzen den modua da komunikazio bideak ezartzea —edo posta elektronikoz (ovgb.bgib@bizkaia.net buzoia), posta arruntez, telefonoz..., edo bilerak eginez—, erakundeak webgunera genero indarkeria gutxitzeko egokia den material edo tresna ororen informazioa pasatzearekin batera, heda dadin.

Emakumeen aurkako indarkeriaren gatazka aztertzearen eta Bizkaian diren baliabide eta zerbitzuak —bai eta, estatistikaren ikuspegitik, azpiegitura horiek erabiltzen dituzten pertsonen egoerak eta

ezaugarriak ere— zehatz jasotzearen, hainbat iturrik emandako informazioa bateratuz sortutako produktuak ezagutarazten ditu Behatokiak.

e. Baliabideen mapa

Genero Indarkeriaren Arloko Baliabideen Mapa zabaldu egin da 2006. urtean. Tresna horrek informazio fidagarria erakusten du Bizkaian etxeko indarkeria jasaten duten emakumeei laguntzeko diren baliabide guztien gainean, baliabideon erabiltzaileei aholkua, orientazioa eta zaintza eskaintzeari dagokionez, komunitateko zerbitzuek laguntza integrala eman diezaieten hasteko, laguntzeko edo ekarpena egiteko.

Datu base horretarako sarbidea Behatokiaren webgunean dago (Bizkaiko Foru Aldundiaren eta, zehazki, Gizarte Ekintza Sailaren webgunearekin bat datorren sistema baten arabera diseinatu eta inplementatutako webgunea da).

Mapa pentsatuta dago informazio oso eta eguneratua, zehaztasunik handienarekin bildua, emateko, hainbat kolektiboren artean zabaltzearren. Hona hemen kolektibo horiek:

- Laguntzaren inguruko erakundeetako eragileak: haien zerbitzuak hobetzen lagungarriak izan daitezkeen inguruko baliabideei buruko informazio osoa eskaintzen da, eta, arazoari heltzearren, kontsultarako edo azterketarako oinarritzakoak diren dokumentuak (udalerri eta mankomunitateetan indarrean diren plan, programa edo protokoloak) eskuratzea ahalbidetzen zaie.
- Indarkeria jasaten duten pertsonak: laguntza emateko zerbitzuak xeheki jakinarazten zaizkie, eta zerbitzuok erabiltzeko harremanetarako datuak ematen.
- Politika publikoen arduradunak: informazioa ematen dien datu garrantzitsuak eskuratzea ahalbidetzen zaie, informazioa izanda lehengai behinena erabakiak hartzerakoan.
- Herritarrak/komunitatea: indarkeriako egoerei aurre egitea bere gain dituzten baliabide eta erakundeak zein diren jakin dezakete.

Mapa azterketa prozesu baten emaitza izan zen, eta gauzatu ahal izan zen —eta izaten da— indarkeria egoeretan laguntza ematen parte hartzen duten erakundeekin komunikazioan egoteari esker. Horrela, hainbat helburu betetzea ahalbidetzen ari da:

- Laguntza emateko zirkuituan parte hartzen duten erakundeak ezagutu eta identifikatzea.
- Arlo honetan lan egiten duten agintari eta erakundeei erabakiak hartzeko behar duten informazioa ematea.

- Udalerri eta mankomunitateek garaturiko plan eta programen artean, erreferentzia izan daitezkeen horiei buruzko informazio esanguratsua jasotzea.
- Ezagutzak eta esperientzia teknikoak (planak) partekatzea.
- Oinarri-lerro bat izatea, baliabide eta egituretan dauden hutsuneei antzematea ahalbidetzen duena.
- Ahaleginak baliabide gutxien dituzten inguruneetan biltzea.

Udal harremanen sarea osatzen duten 112 udalerrien egoera erkatu da, telefonoz edo aurrez aurre, indarkeriaren alorrean dituzten gizarte baliabide bereziak direla eta: harrera, laguntza psikologikoa eta lege aholkularitza. Ondoren, webgunea editatu aurretiko pausoetan bildu den informazio guztia eduki eta erakusteko bereziki diseinaturiko euskarri informatiko batera pasatu ziren datuak.

Mapak zortzi atal ditu, eta udalerri bakoitzeko informazioa ematen du: Indarkeriaren aurkako zerbitzu espezializatuak; Gizarte arloko baliabideak; Poliziaren arloko baliabideak; Justiziaren arloko baliabideak; Osasun arloko baliabideak; Elkartek, eta Berdintasunerako tresnak. Informazio hori, halaber, hiru kategoriatan ematen da; Harremanetarako informazioa; Deskribatzeko informazioa (esate baterako, harrera pisuen kopurua); eta Dokumentu informazioa. Informazioak, gainera, bi tankera edo informazio maila izan ditzake:

- A. Udalerrien fitxak: udalerri bat mapa grafiko batean edo goitibehera-koadro batean aukeratuta, udal horrek dituen baliabideei buruzko informazioa daukan fitxa bistaratzen da.
- B. Baliabideen zerrenda: tresna eraginkorragoa izan dadin, mapak badu baliabideen bilatzaile bat, zerrendak hiru mailatan eskuratzea ahalbidetzen duena:
 - Mapak dauzkan baliabide guztiak, hots, udalerri guztietako baliabideak.
 - Udalerri bateko baliabideen hautapen bat.
 - Udalerri guztietako baliabideen gaineko informazioa, kontsultako arlo bat edo gehiago aukeratuta.

Baliabideen Mapa taxutzea prozesu ireki eta etengabea da, eta haren xedea da, argitara ematen denaz geroztik, indarkeriako egoeretan laguntza emateko Bizkaiko baliabideei buruz plataforma horretan den informazioa mantendu eta zabaltzea.

Aitortua zaio Baliabideen Mapari lan tresna gisa duen baliagarritasuna, eta, hala, jakina da Bizkaiko Lurralde Historikoko nahiz EAEko zenbait erakundek erabili dutela, hala nola Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko *Etxean Tratu Txarrak eta/edo Sexu Erasoak jasaten dituzten Emakumeei Laguntzeko Telefono bidezko Zerbitzuak*. Araban nahiz Gipuzkoan antzeko ekimenak

abian jartzeko aukera aintzat hartu dute, probintzia horietan diren baliabideen gaineko informazioa biltzeko.

f. Informazio buletina

2006ko ekitaldian Behatokiaren Buletin elektronikoaren hiru zenbaki argitaratu dira: 1. zk., maiatzean; 2. zk., urrian; eta 3. zk., abenduan.

Behatokiaren Lan Planean jasota dago Buletinaren betekizunak direla, sentiberatzea, informatzea eta indarkeriako egoerei aurre egiteko diren prozedurak eta mekanismoak bultzatu eta indartzea.

Aldizkako argitalpen hau 2005eko abenduaren 21eko osoko bileran berretsi zen, eta honako zeregin hauek eman zitzaizkion:

- Behatokiak informazioa bildu eta aztertzeko organo gisa duen eginkizuna indartzea, udalekiko eta informazioa ematen duten beste erakunde batzuekiko harremanetan lagungarria izatean.
- Erakunde, udal eta gainerako administrazioekiko harreman sarea sendotzea.
- Indarkeriari buruzko ezagutzak partekatzea arlo horretan diharduten profesionalekin.
- Behatokiaren jardueren berri ematea eta haien ondorioak zabaltzea.
- Plataforma izatea antzeko erakundeek abian jarritako ekimenak ere hedatzeko.
- Genero indarkeriaren arazoa ikusgai bihurtzeko beste bide bat izatea.

Formaren aldetik, Buletinak bost atal ditu:

- “Aurkezpena”
- “Gaiak”
- “Behatokia”
- “Tresnak”
- “Kontuan hartu”

Buletinaren 1. zenbakia 2006ko maiatzean atera zen, eta Juan María Aburto Behatokiko zuzendari eta Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Saileko buruari eginiko elkarrizketa jaso zuen. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegiak eta gizarte zerbitzuetan informazioa biltzeko eredu fitxak izan zituen gai nagusitzat. Urrian, 2. zenbakian, hain zuzen, elkarrizketatua Miren Dobaran izan zen, Euskadiko Udalen Elkarteko (EUEDEL) Batzorde Eragileko Emakume Arloren nahiz Euskara Arloaren arduraduna. Era berean, Emakumeen aurkako etxe eremuko indarkeria dela eta, Familian Esku Hartzeko Programa Espezializatua eta “Genero indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizarte babesaren, poliziaren eta justiziaren arloak, 2005” dosierra ezagutzera eman ziren. 2006. urtea bukatzeko, 3. zenbakian, abenduan, buletina Maite Erro Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren arartekoarekin mintzatu zen, eta Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen Bizkaiko Lurralde Historikoaren Atlas tresna *eta Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida* argitalpena aurkeztu zituen.

Buletina gehiago hedatzeko neurrien artean, aldizkako agerkari hori Behatokiaren webgunean argitara emateaz gain, posta elektronikoz ere banatzen da, berariaz prestatutako posta zerrenden bidez, mezuaren gorputzean zuzeneko esteka jarrita buletinak webgunean duen tokirako. Horretarako, banaketa zerrendak egin ziren, non buletina jaso nahi duen irakurle oro sar baitaitekeen. Honako pertsona eta erakunde hauek jarri ziren zerrendotan.

- Bizkaiko udalerri eta mankomunitateetako gizarte ongizaterako eta berdintasunerako arloetako politikari eta teknikariak.
- Behatokiarekin komunikazioan dauden profesionalak.
- Arlon honetako elkarteak.
- Behatokiko batzarkideak.
- Batzordeko Adierazleei buruzko Lan Taldeko kideak.
- Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordeko kideei.
- Genero indarkeriaren ikerketari loturik dauden eta aldizkako agerkaria jaso nahi duten pertsonak.
- Agerkaria jasotzeko interesa duten pertsonak.

g. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko zifrak Europar Batasunean

Behatokian adierazleak eratzaz arduratzen den lan taldeak, 2006ko irailean, erabaki zuen Europar Batasuneko Estatu kideetako datuak ateratzea, emakumeen aurka bikotekideek edo bikotekide ohiek egiten ohi duten indarkeriari dagokionez.

Behin Europako hainbat erakundek emandako estatistikak aztertu eta gero, ikusitako zailtasun nagusiak izan ziren neurketa osoa ez izatea (biktima diren emakumeek adierazitako edo ofizioz atzemandako gertaeretatik zetozen informazioa) eta herrialdeen ikuspegiaren artean desberdintasunak egotea. Horrek guztiak Estatu kideen arteko erkaketa sendoa egitea eragozten zuen.

"Behatokia" atalak *Genero indarkeria egoeretako jaramonaren kopuruak Bizkaiko Lurralde Historikoan: babes sozial, polizial eta judizialaren esparruak, 2005*, txostenaren laburpena egiten du. Txosten horren egilea organo hau bera da eta hori lortzeko esparru hauetan jarduten duten erakundeek ezarrita dauden bitarteko eta errekurso guztietan laguntza eskatu duten pertsonen buruz eskuratu dituzten datuak sistematizatu dira.

"Tresnak" atalean Miren Dobaranek, Berangoko alkatea eta Eudel-eko Batzorde Exekutiboko Emakumearen Sailaren arduraduna denak, Berdinsareari buruzko elkarrizketa eskaintzen digu. Berdinsarea Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeekiko Indarkeriaren Aurkako Euskal Udalen Sarea da eta elkarrizketan Dobaranek proiektuaren jatorria eta sorkuntza azaltzen dizkigu, eta sorkuntzan ezarri ziren helburuak eta Sarean parte hartzen duten udalerriak berdintasuna lortzeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurka borrokatzeko hartzen ari diren neurriak azaltzen ditu.

Edizio honen itxiera burutu aurretik astia dago beste gai batzuk komentatzeko, barbarako Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren sorkuntza, edo txosten pare bat, *Arartekoaren 2005eko txostena, Eusko Legebiltzarrari aurkeztu diona, eta Etxeko Tratu Txar eta Sexu Indarkeria kasuetan jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako Gidaliburua*. Hiru berri labur hauekin gure asmoa hausnarketa sortaraztea da, "Kontuan hartu" atalean, eta horrekin buletinak hurrengo alera berriz etortzeko deialdia egiten dizue.

Berriz ere, agurtu aurretik, gure irakurle guztiei eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko lan egiten duzuen guztioi gogorarazi nahi dizuegu gure asmoa beti dela zuen ekarpenak jasotzea eta zuek beti egon dauden ekitaldi, ekintza, eskaera, proposamen... guztien berri izatea, eta jakin dakizue hori lortzeko norberak nahi duena adierazteko esparrua duzuela eskura.



GAI AK

Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako famili esku-hartzea



Bizkaiko Foru Aldundiak famili esku-hartzeko programa jarri du abian, etxeko tratu txarrak pairatzen dituzten eta erasotzailearekin bizi diren emakumeei eta ardura peko adingabekoei laguntzeko...

(+) [Irakurri artikulu guztia](#)

BEHATOKIA

Emakumeen aurkako indarkeria kasuetako jaramonaren datuak



Behatokiak urtero egiten eta argitaratzen du esparru sozial, polizial eta judizialetan lantzen diren emakumeen aurkako indarkeria kasuen estatistikak ematen dituen txostena...

(+) [Irakurri artikulu guztia](#)

TRESNAK


BERDINSAREA. Miren Dobarani egindako elkarrizketa



"Euskadiko udalek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiteko erabiltzen duten tresna berria da..."

(+) [Irakurri artikulu guztia](#)

KONTUAN HARTU



- "Emakumeek jasaten dituzten etxeko tratu txarren..."
- "Arartekoaren 2005. urteko txostena".
- Estatuko Behatokia.

(+) [Irakurri artikulu guztia](#)

[Inprimatu](#)

[Itxi](#)



Buletin elektroniko hau gure datu-basean zaudelako jasotzen duzu.
Ez baduzu berriro jasotzea, [Komunikatu iezaguzu](#) .

Copyright © 2005. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA.

[Aurkezpena](#) | [Gaiak](#) | [Behatokia](#) | [Tresnak](#) | [Kontuan hartu](#)

GAIAK

Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako famili esku-hartzea

Bizkaiko Foru Aldundiak famili esku-hartzeko programa jarri du abian, etxeko tratatu txarrak pairatzen dituzten eta erasotzailearekin bizi diren emakumeei eta ardurapeko adingabekoei laguntzeko.



2006ko maiatzean, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak Emakumeen aurkako Famili Indarkerian espezializatutako Etxe-eremuko Esku-hartzeko Programa jarri zuen abian eta Suspergintza Elkartea enpresari esleitu zitzaion hori eskaintzeko kontratua.

Gizarte eragileekiko koordinazioa eta lankidetzak

Ekimen berritzailea da; esku-hartze horren bidez, etxeko tratatu txarrak pairatzen dituzten eta erasotzailearekin bizi diren emakumeei oinarritzko laguntza ematen zaie, prozesu osoan zehar konpainia eta babesa eskainita.

Bost alderdi orokorrek zehazten dituzte programa honetako **funtzio orokorrak**:

1. Famili dinamikaren eta familiko pertsona bakoitzaren egoeraren balorazio orokorra.
2. Nagusiei nahiz adingabekoei zuzendutako banako eta taldeko esku-hartzeen plangintza, programazioa eta ebaluazioa.
3. Garatu beharreko esku-hartzea praktikan jartzea.
4. Etengabeko ebaluazioa egitea esku-hartze prozesuak iraun bitartean eta hori amaitzean.
5. Gizarte eragileekiko koordinazioa eta lankidetzak.

Bitartekotzaren protagonista modura, programak emakumeei eta adingabekoei eskaintzen die arreta, jarraian zehazten diren **xedeak** lortze aldera:

1. Indarkeriaren biktima diren emakumeei eta ardurapeko adingabekoei bizitzako egoera traumatikoak gainditzeko eta indarkeriarik gabeko bizimodu autonomoa lortzen laguntzea.
2. Esku-hartze horren xede diren pertsonen norbere hazkuntza eta hazkuntza soziala.
3. Erabiltzaileei kudeaketa lanak egiteko eta beren bizitza erasorik gabe berreraikitze beharrezko erabakiak hartzeko gaitzea.
4. Emakumea menpekotasun egoeran eta, ondorioz, indarkeriazkoan, egotera daramaten portaera, jokabide eta iritziak berreztea.
5. Indarkeria gatazkak konpontzeko metodo gisa erabiltzea justifikatzen ez duten ideia, jarrera eta balioak berreztea adingabekoengan eta hauei harreman pertsonal eta sozialetarako gaitasunak ematea.

6. Erabiltzaileei ama izateko zereginetan gaitzea, beharrezkoa denetan.
7. Gizarte eragileak emakumeen aurkako indarkeriaren gaiarekiko sentsibilizatzea

... Emakumea menpekotasun egoeran eta, ondorioz, indarkeriazkoan, egotera daramaten portaera, jokabide eta iritziak berreztea

Esku-hartze Programa honek bi erronkari egin behar die aurre: batetik, banako esku-hartzean jartzen du arreta; eta, bestetik, emakumeei eta adingabekoei zuzendutako talde jarduna jasotzen du. Jardun horren bidez, bilakaera

pertsonalaren alderdia landuko da eta pertsonaren beraren gatazkak nahiz pertsonarekin zerikusirik ez dutenak konpontzeko teknikak banaka ikasiko dira.

Iraupenari dagokionez, proiektuak gutxi gorabehera bederatzi hilabeteko iraupena izango du. Hala ere, luzatu ere egin ahal izango da, esku-hartze prozesuan antzematen diren ezaugarrien eta bilakaeraren arabera.

...ekimen berritzailea da; esku-hartze horren bidez, etxeko tratu txarrak pairatzen dituzten eta erasotzailearekin bizi diren emakumeei oinarritzko laguntza ematen zaie

JASOTZAILEAK

Programak Bizkaian bizi diren emakumeak hartzen ditu jasotzaile gisa. Horietako batzuek adingabekoak dituzte beren ardurapean eta, horrez gain, honako egoeraren batean egon daitezke:

1. harrera-zentroan denboraldi bat egin ondoren, familiaren egoitzara itzultzen dira; bertan erasotzailea bizi da.
2. erasotzailearekin batera bizi dira inolako salaketarik jarri gabe.
3. zenbait salaketa jarri eta kendu ondoren, ezkontza-egoitzara itzuli dira.
4. lehen aldiz salatu arren (demanda kendu edo ez aintzat hartu gabe), tratu txar ugari jaso dituzte eta tratu txarrak eragin dizkietenekin bizi dira.

ESKABIDEAK ETA DOKUMENTAZIOA

Programan parte hartzeko inprimaki ofizial bidez egiten den eskabidea Gizartekintza Saileko bulegoetara (Nicolás Alkorta kalea, 4. 48003 Bilbao) bidaliko du Gizarte Zerbitzuak edo horri dagokion erakundeak; edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan xedatutako modalitateetakoren bat erabilita.

Esku-hartze Programa honek bi erronkari egin behar die aurre: batetik, banako esku-hartzean jartzen du arreta (...); eta, bestetik, emakumeei eta adingabekoei zuzendutako talde jarduna jasotzen du.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Emakume eta Familiarentzako Zerbitzua
Gizartekintza Saila - Bizkaiko Foru Aldundia
Ugasko kalea, 3 - 2. solairua (Bilbo)
<http://www.bizkaia.net>





[Inprimitu](#)



[Berbidali](#)



[Itxi](#)

[Hasierako horrialdera itzuli](#)

Buletin elektroniko hau gure datu-basean zaudelako jasotzen duzu.
Ez baduzu berriro jasotzea, [Komunikatu iezaguzu](#) .

Copyright © 2005. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA.

[Aurkezpena](#) | [Gaiak](#) | [Behatokia](#) | [Tresnak](#) | [Kontuan hartu](#)

BEHATOKIA

Emakumeen aurkako indarkeria kasuetako jaramonaren datuak

Behatokiak urtero egiten eta argitaratzen du esparru sozial, polizial eta judizialean lantzen diren emakumeen aurkako indarkeria kasuen estatistikak ematen dituen txostena. Txosten hori euskal administrazio publikoaren hiru maillettako erakundeek ematen dituzten datuekin egiten da. Web orrian 2005 urteari dagokion edizioa eskura daiteke.



Urtero Bizkaian Genero Biolentzia Aztertzeko Behatokiak txosten bat egiten eta argitaratzen du, euren webean ikus daitekeena. Txosten horretan zenbakietan sistematizatzen da emakumeek EAEn pairatzen dituzten tratu txarren errealitatea. Bada, txosten hori Behatokia eta indarkeria ezabatzeko konpromisoa duten erakunde publiko (Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saila; EUEDEL - Euskal Udalen Elkartea; Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Saila; Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saila; Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Saila; eta Etxeko Indarkeria eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridiko eta Ofiziozko Txanda Zerbitzua) eta antzeko izakiekiko lankidetzari esker sortu da. Bada jarraian adierazten diren ildoak azpimarratuta guk ondoko datu adierazgarri hauek aurkeztu nahi genituzke.

Lurraldean gertatzen diren tratu txarren egoeraren errealitatea ezagutzeko beste urrats bat emanez Behatokiko gaur egungo taldea txosten honetan bildu den informazioa abiaburutzat hartuko duen dokumentua egiteko prozesuan dago murgilduta, zertarako-eta udal mailan tratu txarrek duten eraginaren azterlanean aurrera egiteko, hau da, Bitartekoen Atlasa eratuko dutenak.

I. GIZARTE BABESA. Egonaldi ertain edo luzeko zentroak.

• Abegiari buruzko datuak

Bizkaiko Foru Aldundiaren **Larrialdi Zerbitzuak** etxean indarkeria pairatu duten 87 emakume biktima lagundu ditu 2005ean, eta horiek 64 seme-alaba zituzten euren kargura. Esan daiteke ia erdia Bilbokoak direla (%49). Larrialdi Zerbitzuan tratatu diren emakumeen %44 inmigranteak ziren.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Larrialdietako Zerbitzuak, 2005ean, euren pentzudan adingabekoak eduki eta etxean tratu txarrik pairatu dituzten 87 emakume biktimaren deiak tratatu ditu

Bizkaian foru erakundeak **guztira** 91 emakume biktima eta 68 adingabeko hartu ditu abegian eta horiek izan dira abegi zentroetako erabiltzaileak, hau da, hala **larrialdietakoak nola**

egonaldi ertain-luzekoak.

Tratu txarren emaitzako ingreso berrien artean emakumeari jaramon egiteko BFAren egonaldi ertain-luzeko zentroek 19 emakume biktima hartu dituzte, hala bakarrik daudenak nola adingabekoekin, eta horien egonaldia gutxi gorabehera 119 egunekoa izan da.

Ingresoaren prozedura Larrialdi Zerbitzuetakoa zuzena da.

Lurralde Historikoan 8 **udalerrik eta mankomunitatek** abegia emateko bitartekoak dituzte eta 2005 urtean horietan abegia eman zaie 45 emakume eta horien kargura egon diren 42 adingabekori. Ingreso horietatik 26 emakume eta 30 adingabeko Bilboko udalean gertatu dira.

• Aholkularitza Juridikoari buruzko datuak

Foru Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzura jo duten 504 pertsonetatik 367 zerbitzua lehenengoz erabili duten emakumeak izan dira eta horietatik 59 kasu etxeko indarkeriaren arlokoak izan dira. 2005ean Bizkaiko 15 udalerrik eta 5 mankomunitatek mantendu dute edo abian jarri dute aholkularitza juridikoko zerbitzu bat.

Biktimak eragile edo autorearekin duen harremanaren arabera aztertu diren kasuetan etxean emakumeen aurka gertatzen diren ekintza biolentoen eragile nagusia ezkontidea edo analogoa izaten da: 1.045 auziperatu

• Abegi Psikologikoari buruzko datuak

BFAren abegi psikologikoko egitarauak hornitu dituen datuen arabera laguntza eskatu duten 658 eskabideetatik 591 kasu 15 udalerritan bizi diren emakumeenak izan dira (Amorebieta, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxo, Leioa, Muskiz, Orduña, Portugalete eta Zalla), eta Mungialdeko mankomunitatekoak.

2005ean zehar 14 udalerrri eta mankomunitate bat izan dira Abegi Psikologikoko Zerbitzu bat mantendu edo abian jarri dutenak.

• Familientzako Bilguneei buruzko datuak

Bizkaian, kasu honetan Foru Aldundiarengandik eta Portugaleteko udalarengandik eskuratu diren datuen arabera, bi erakunde horiek direlako Familientzako Bilgunearen zerbitzua bideratzen dutenak, **babesteko aginduak dituzten familien** arloan euren pentzudan 21 adingabeko izan duten 18 emakume izan dira foru erakundearen **pertsona erabiltzaileak**, eta 20 eta 24 adingabekoren ardura zuten beste 14 emakume Portugaleteko udalarenean.

Etxeko Indarkeria eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridiko eta Ofiziozko Txanda Zerbitzuak Bizkaian 911 emakume lagundu ditu, era guztietako adin eta naziotasunetakoak

• Etxebizitzari buruzko datuak

2005ean **euren pentzudan adingabekoak dituzten eta/edo genero indarkeriaren biktimak diren guraso bakarreko unitateen kupo** bereziari dagokionez 113 eskabide jaso dira eta horrek esan nahi du EAE osoaren %64 dela.

Genero biolentziaren biktimentzat alogera araubidean etxebizitzaren esleipen zuzeneko egitarauaren barruan Bizkaian 10 eskabide jaso ziren, hau da, EAEn jaso diren guztien %59.

II. POLIZIALA

• Biktimizazioei buruzko datuak

Egitate motako etxeko indarkeriaren emakumeen biktimizazioen lerrunean, EAEn guztira 2.456 delitu eta 368 falta zenbatetsi ziren eta Bizkaian 1.441 delitu eta 207 falta izan ziren. **Ezkontide edo pertsona analogoaren** aurkako delitua egiteko, adin lerrunari dagokionez, lehenbizikoa 33 eta 39 urte artekoa dago.

- **Pertsonei buruzko datuak**

Ikusten da ezkontide edo pertsona analogoa dela lehenengoa **biktima eta eragileen artean dagoen harremanari dagokionez** aztertu diren etxe barruan emakumeen aurka gertatzen diren indarkeria kasuen eragile nagusia: 1.045 auziperatu Bizkaian.

III. JUDIZIALA

- **Auzitegietako prozesuei buruzko datuak**

Bizkaian berariaz Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Auzitegian ingresatu diren prozesuak 1.485 izan dira. Multzorik **lurraldeen arabera sailkatzen bada** Bilboko Epaitegian 763 ingreso egon dira.

EAEn barruan **barruti judizialaren gai penal eta zibilen** arloa aztertzen bada (2.207 gai), Bizkaian 1.084 landu dira. Udal mailari dagokionez kasu honetan ere goragoko mailan Bilbo dago, bertan 610 gai gertatu baitira.

EAEn eman diren **babesteko 641 aginduetatik** Bizkaian horien %61 gertatu da (393), eta horietatik 200 eskabideren kasuan ebazpena positiboa izan da.

- **Biktimei egiten zaien jaramonari buruzko datuak**

BJZak eman dituen datuen arabera Autonomia Erkidego osoan 1.406 kasu landu dira eta horietatik Bizkaian 618 gertatu dira.

Iristeko bide nagusiak barruti judizialak eta gizarte zerbitzuak izaten dira. Zuzeneko biktimen eskaeren kasuan bi adin tarte nagusitu dira: 36-45 urtekoa eta 26-35 urtekoa.

Delituaren egileari dagokionez atal honen barruan ezkontidea edo egitatezko bikotekidea (345 biktima zuzen) eta bikotekide ohiak (123 biktima zuzen) azaltzen dira lehenengo tokietan.

Demanda motaren arabera 526 emakumek aholkularitza juridikoa jaso dute, 374 emakumek gizarte laguntza eta 24k laguntza psikologikoa.

- **Legelarien laguntzari buruzko datuak (Ofiziozko Txanda)**

Etxeko Indarkeria eta/edo Eraso Sexualen Biktimentzako Aholkularitza Juridiko eta Ofiziozko Txanda Zerbitzuak Bizkaian 911 emakume lagundu ditu, era askotako adin eta naziotasunetakoak.

Esku hartze horren zioari dagokionez 1.232 emakumeren kasuan jaramonaren arrazoia tratatu txarrak izan dira.

Jatorriari dagokionez epaitegietako organoek tramitatu dituzte esku hartzeak 624 kasutan, eta gero, bigarren tokian, beste polizia batzuk agertzen dira (udaltzaingoak eta nazio polizia), horiek 527 kasutan ezarri dituztelako dilijentziak.

Barruti judizialari dagokionez Bilbo da indarkeriaren biktima diren emakumeen kopururik altuena duena, 556rekin, eta gero Barakaldo dago 242 esku hartzerekin.

- **Auzitegiko medikuen jaramonari buruzko datuak**

Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak eman dituen datuen arabera, berak **Lurralde Historikoetan etxeko indarkeriaren arloan egin dituen jarduketak** aintzat hartuta, Bizkaian 631 paziente berri egon direla kalkulatu du.

2005eko emakumeen kontrako indarkeria egoerari arretaren zifrak



[Inprimitu](#)



[Berbidali](#)



[Itxi](#)

[Hasierako horrialdera itzuli](#)

Buletin elektroniko hau gure datu-basean zaudelako jasotzen duzu.
Ez baduzu berririo jasotzea, [Komunikatu iezaguzu](#) .

Copyright © 2005. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA.

[Aurkezpena](#) | [Gaiak](#) | [Behatokia](#) | [Tresnak](#) | [Kontuan hartu](#)

TRESNAK

BERDINSAREA

Berdintasunaren aldeko eta Biolentziaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea

2003az geroztik Miren Dobaran Urrutia (1970) Berangoko alkatea da eta, gaur egun, Euskadiko Udalen Elkartearen (EUEDEL) Batzorde Eragileko Emakume Areaz eta Euskara Areaz arduratzen da. Kargu horietatik ekimen eta proiektu desberdinak bultzatu ditu, horien artean, Berdintasunaren aldeko eta Emakumeen aurkako Biolentziaren kontrako Euskadiko Udalen Sarea (Berdinsarea).



Zer da Berdinsarea?

Euskadiko udalek gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde lan egiteko erabiltzen duten tresna berria da.. Sare hau Eudelen sortu zen, Emakunderen laguntzarekin, eta bere helburua berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako biolentziaren kontra lan egiteko konpromisoa hartu nahi duten euskal udalak biltzea da. Era berean, arlo honetan udalek abian dituzten politikak hobetzeko tresna ere bada eta lotura gisa balioko du tokiko gobernuen eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuen artean.

"Berdinsarean asmoa lan-taldeka jardutea da; horietako batzuk udaletako gizarte-laneko profesionalei zuzenduta daude"

Zeintzuk dira bere aurrekariak?

2001eko urriaren 18an [Etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko erakunde-arteko akordioa](#) sinatu zuten arlo honetan diharduten

euskal erakunde guztiek. Akordioaren Jarraipen Batzordeak adierazi zuen beharrezkoa zela udal eremuan lankidetzat-hitzarmenak eta jarduteko protokoloak prestatzea, akordioan nahikoa modu orokorrean xedatutakoa garatzeko, zehazteko eta beren errealitateetara egokitzeke. Akordioan xedatutakoa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikuluan jaso zen.

2002an, beste zenbait erakunderen artean Eudel ere kide duen jarraipen-batzorde horrek [Etxeko tratatu txarren biktima diren emakumeentzako Segurtasun Plana \(2002-2004\)](#) onetsi zuen; bertan jasotako neurri batek honela zioen: "Emakumeen aurkako biolentziaren kontrako Euskadiko Udalen Sarea eratzea, tokiko eremuan, era horretako indarkeriari aurre egitera eta horren biktimei laguntzera zuzendutako programak eta jardunak ezar daitezzen sustatzeko, esperientzien trukea, koordinazioa eta baterako jardunak oinarritzat hartuta".

Gaur egungo testuinguruan, zein beharri erantzuten die sare honek?

BERDINSAREA gobernu lokalek kudeatutako berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako biolentziaren gaineko programak eta zerbitzuak bultzatu, indartu, koordinatu eta ebaluatzeke asmoz sortu zen. Garai horretan, premiazkoa zen jarduteko eta ebaluatzeke irizpideak

bateratzea, ekintza publiko lokalaren maila guztietan erabiltzeko eta sarearen bitartez udal erakundeen eta udalaz gaindikoen arteko lotura gisa.

Zein neurri zehatz aurreikusi dira ezarritako helburuak betetzeko?

Berdintasuna sustatzera eta desberdintasunak eta emakumeen aurkako biolentzia ezabatzerako bideratutako programak eta jarduerak bultzatuko dira tokiko eremuan, 4/2005 Legearekin bat etorriz; esperientzien trukea, koordinazioa eta jarduteko irizpideen batasuna erraztea, tokiko eremuan jardunak egiterakoan.

Orobat, akordioak eta protokoloak har daitezten sustatzea, berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako biolentziari aurre egiteko udalaz gaindi adosten dena garatzeko, zehazteko eta udal bakoitzaren errealitatera egokitzeke; egungo politikak aztertzea eta lege-aplikazioaren inguruko hausnarketa egitea; udaletako jardunbide egokiak identifikatzea eta zabaltzea; eta arlo honetaz arduratzeko egitura eta baliabiderik ez duten udalak dinamizatzea eta horiei laguntza ematea.

Orain arte, zeintzuk gauzatu dira?

Berdintasun-legearen inplikazioei buruzko informazio-jardunaldia antolatzea; gida argitaratzea etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeentzako

"... baliabide gutxi dituzten udal txikien kasuan, estrategia udalak multzoka banatuta lan egitea izango litzateke..."

arreta emateko tokiko protokoloak finkatzeko; berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako biolentziari aurre egiteko tokiko ekimenen inguruan trukatzeko-eremuak prestatzea (BERDINTRUKE)... Orobat, BERDINSAREari atxikitzeke interesa agertu duten udalekin topaketak egin dira eta informazio-eremua jarri da Eudelen web orrian informazio hori guztia eskuratu ahal izateko.

Zerk baldintzatzen du BERDINSAREAn parte hartzea?

Hautagai diren udalek indarreko legeria gorde behar dute: udaleko osokoak onetsi duen emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana edo programa izan behar dute eta hori sustatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan esperientzia edo gaikuntza espezifikoa duten teknikariak izan behar dituzte. Gainera, urtero, beren aurrekontuetan, beharrezko baliabide materialak eta diru-baliabideak esleituko dituzte funtzioak betetzeko eta plan edo programan aurreikusitako neurriak hartzeko; emakumeen elkarteekin eta tokiko eremuko antzeko beste erakunde batzuekin partaidetza- eta lankidetzak harremanak eta bideak ezarri behar dituzte. Etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak prebenitzeko eta horien biktimei laguntza eta babesa eskaintzeko indarrean dagoen arautegia bete behar dute. Eta, azkenik, sarean partaidetza aktiboa izango dutela bermatu behar dute.

Zergatik aukeratu da estrategia hau?

Gai honetaz arduratzen diren udalek osatutako sarea bultzatu nahi da. Helburua ez da asko izatea, baizik eta parte hartzen dugunok sarean energikoki esku hartzea. Bestalde, jada sarean integratuta daudenak beste batzuei parte hartzeko bihotz emango dien erreferentzia gisa har daitezten lortu nahi dugu.

"Berdinsarearen bidez, biolentziaren biktimak diren emakumeek eskubide berak eta baliabideak eskuratzeko aukera berdina izatea lortu nahi da, beren jatorrizko udala edozein dela ere"

Emakumeen aurkako biolentziak diziplina anitz barneratzen dituzten eta erakunde-arteko koordinazioan oinarrituta dauden erantzunak behar ditu. Zein balorazio egin daiteke gai honi dagokionez EAEko udalei buruz?

Zenbait udalek erakunde-arteko beren protokoloak diseinatu dituzte erakunde-arteko akordioan oinarrituta eta, horrekin batera, koordinazio-esparruetan lan egiten dute udalaz gaindiko erakundeekin (aldundiak eta Eusko Jaurlaritza), nola zuzenean hala Eudelen bitartez. Hala ere, arlo honetan oraindik erronka askori egin behar die aurre BERDINSAREAK.

Gizarte-laneko profesionalek egindako lanari begiratuta, zein da egitura berri honen ekarpen nagusia?

BERDINSAREako solaskide teknikoak nagusiki Berdintasunaren arloko teknikariak diren arren, lantzen diren gaien arabera, kasuan kasu egokiena den profesionalak parte hartu behar du. Horrela, zenbait alderdi aztertzerakoan (biolentziaren biktima diren emakumeentzako baliabideak, arreta...), eurak dira egindako lanaren solaskide nagusiak, baita lan horren onuradunak ere. Izan ere, asmoa lan-taldeka jardutea da; horietako batzuk udaletako gizarte-laneko profesionalei zuzenduta daude.

Nola pentsatu da udalek egindako lanari laguntza ematea egiturazko baliabide gutxiagorekin?

BERDINSAREari atxikitzen diren erakundeak udalak diren arren, baliabide gutxi dituzten udal txikien kasuan, estrategia udalak udal elkarteekin (mankomunitateak, kuadrillak...) lan egitea izango litzateke; horrela, baliabide jakin batzuk batera kudeatu ahal izango lirateke.

Azkenik, zein neurritan laguntzen du sare honek biolentziaren biktima diren emakumeen egoera hobetzen?

Berdinsarearen bidez, biolentziaren biktima diren emakumeek eskubide berak eta baliabideak eskuratzeko aukera berdinak izatea lortu nahi da, beren jatorrizko udala edozein dela ere. Gainera, arretaren kalitatea ere hobetu nahi da eta baita emakumeek tokiko protokoloetan egin behar duten ibilbidea erraztea ere, ahalik eta arinena eta eraginkorra izan dadin.

"Funtsezkoa da biolentziaren biktima diren emakumeei botere handiagoa lortzeko prozesua sendotuko duen ikuspegitik laguntzea"

BERDINSAREAk uste du funtsezkoa dela biolentziaren biktima diren emakumeei botere handiagoa lortzeko prozesua sendotuko duen ikuspegitik laguntzea. Ikuspegi horretatik, bigarren mailako biktimizazioa mugatuko da eta haien autonomia pertsonala indartuko bidez.

Berdinsarea-sareari atxitutako EAEko udalak:





[Inprimitu](#)



[Berbidali](#)



[Itxi](#)

[Hasierako horrialdera itzuli](#)

Buletin elektroniko hau gure datu-basean zaudelako jasotzen duzu.
Ez baduzu berririo jasotzea, [Komunikatu iezaguzu](#) .

Copyright © 2005. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA.

[Aurkezpena](#) | [Gaiak](#) | [Behatokia](#) | [Tresnak](#) | [Kontuan hartu](#)

KONTUAN HARTU

Agiriak:

EMAKUMEEK JASATEN DITUZTEN ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-INDARKERIAREN AURREAN JARDUTEKO GIDA GIZARTE-ZERBITZUETAKO PROFESIONALENTZAT



Emakunde - Emakumearen Erakundeak argitaratu du gida hori, Nazioarteko Akordioaren esparruan egin ostean, etxean tratatu txarrak jasaten dituzten eta sexu-erasoak bizi izan dituzten emakumeei arreta hobeagoa emateko asmoarekin. Izan ere, Akordio horren bidez gizarte-zerbitzuetako agenteei kasu horietan esku hartzeko jarraibideak eman nahi izan zaizkie. Eskuliburuaren hasieran ondokoak azaltzen dira: tratatu txarren kasuistika, tratatu txarrak ematen dituenaren eta biktimaren arteko harremanen dinamika, indarkeriaren faseak (tratatu txar fisikoa, psikologikoa edo emozionala, sexuala eta ekonomikoa), adingabekoak tartean egotea... Baina gero sakonago aztertzen dira gizarte-zerbitzuen jarduteko protokoloa pizten duten mekanismoak edo adierazleak.

Gidarekin batera "Etxeko tratatu txarrak gertatzen diren kasuetan informazioa jasotzeko eredua gizarte-zerbitzuen esparruan" izeneko agiria ere ematen da, eta tratatu txarrak daudenean horien gaineko informazioa modu homogeneoan jasotzeko balio du.

Dokumentua deskargatu: [Emakumeei jasaten dituzten etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gida gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat](#)



ARARTEKOAREN 2005. URTEKO TXOSTENA



Arartekoak 2005. urtean Eusko Jaurlaritzan aurkeztutako txostenean, V. kapitulua "Berariazko arreta lehentasunezko taldeen arazoei" izenekoa da. Atal horretan EAEko genero indarkeriaren arazoa jorratzen da eta, horrela, beste alderdi batzuk ere ageri dira: gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen lekukotasuna; ostatu hartzeko baliabideen gaineko balorazioa; poliziak, zerbitzu juridikoek eta gizarte-zerbitzuek emandako arreta; eta etxebizitza eskuratzeko bideen gaineko analisia (kupo berezia, trukaketa eta zuzeneko esleipena).

Txostenean adingabeak ere aztertzen dira, hau da, euren amek jasaten dituzten tratatu txarren ondorioz kalteak izaten dituzten adingabeak; era berean, kasu horiek lehenbailehen antzeman, horietan premiaz esku hartu eta egoera hobetzeko programa, zerbitzuak eta jardunak lortzeko egitura egokiak edukitzea azpimarratzen da.

Descargar documento: [Arartekoaren 2005. urteko txostena](#)



Egiturak:

ESTATUKO BEHATOKIA



2006ko ekainaren 28an sortu zuen Estatuko Gobernuaren Emakumeen Aurkako Indarkeriari aurre egiteko Delegaritzak Berezikiak Estatuko Emakumearen aurkako Indarkeriaren kontra egiteko behatokia, eta [martxoaren 3ko 253/2006 Errege Dekretuaren](#) bidez legezkotu zen. Organo hau ministerio batzuen artekoa da baina Lan eta Gizarte Arazoetako Ministerioari atxikita dago. Bada, bere eginkizunak honakoak izango dira: aholkuak ematea, ebaluatzea, erakundeen arteko lankidetzak gauzatzea, ikertzea, txostenak eta jarduteko iradokizunak egitea eta, azkenik, genero-indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko konpromisoa hartu duten erakunde-egitura barruko arlo pribatu nahiz publikoko sail ezberdinen (gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, justizia, polizia...) informazioa jasotzea diagnostiko- azterlanak egiteko.

Informazio gehiago: <http://www.mtas.es/mujer>



Inprimitu



Berbidali



Itxi

[Hasierako horrialdera itzuli](#)

Buletin elektroniko hau gure datu-basean zaudelako jasotzen duzu.
Ez baduzu berririo jasotzea, [Komunikatu iezaguzu](#) .

Copyright © 2005. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA.

Gizarte Ekintza Saila



Webgunearen mapa

Bizkaiko Genero
Indarkeriaren Behatokia

Buletina BGIB

2006ko Abendua | 3. Zenbakia

Zenbaki honetan...

+ **Aurkezpena**+ **Gaiak**+ **Behatokia**+ **Tresnak**+ **Kontuan hartu** ovgb.bgib@bizkaia.net

Ugasko bidea, 3,
2. solairua
(Plaza eraikina)
48014 Bilbo

Aurkezpena

Tarte txikia irago da Behatokiaren Aldizkariaren azken argitalpenaren eta oraingo honen artean; hala ere, emakumeen kontrako indarkeriei buruzko berriek pil-pilean dira eta etengabe entzuten dugu komunikabideetan, eskubide eta askatasunen haustura hauek gutxitu eta kentzeko, botere publikoek asmatu eta ezarritako egitarau, plan, neurri eta baliabideak areagotu beharra dagoela.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia halakoen oihartzun izan nahi du beraren laugarren argitalpen elektronikoan, "gaiak" atalaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Berdintasunaren Defentsatzako titular den maite Erro andereari eginiko elkarrizketa eskainiz. Defendatzaileak, legeak argitaratzearen ardura izateaz gainera, legeak ez betetzea zuzentzeko zehapen-irizpideak erabakitzeke erakundeen borondatearen eta harakoak aplikatzeko era bateratuaren bermatzaile izanik, nabarmentzen du benetako aldaketa gizarte sistemak eraberritzeak ekarriko duela, orain arteko eraldaketek egiturazko desberdintasunak irautea bultzatu dutelako; hain zuzen ere, genero alorreko nagusitasun-menpekotasunaren binomioan oinarritutako harremanak gainditu eta tradizioz emakumeei eta gizonenei ezarriak izan eta sendo finkatuta dirauten estereotipoak desagiten direnean.

"Behatokia" atalak *Genero indarkeria egoeretako jaramonaren kopuruak Bizkaiko Lurralde Historikoan: babes sozial, polizial eta judizialaren esparruak, 2005*, txostenaren laburpena egiten du. Txosten horren egilea organo hau bera da eta hori lortzeko esparru hauetan jarduten duten erakundeek ezarrita dauden bitarteko eta errekurso guztietan laguntza eskatu duten pertsonen buruz eskuratu dituzten datuak sistematizatu dira.

"Behatokiak", bere aldetik, oraindik argitaratu gabe dagoen azken "Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko bitartekoen atlasa Bizkaiko Lurralde Historikoan" ikerlanaren berri aurreratzen du; obra horretan tratatu txarren aurrean laguntza behar duten eskatzaile bizkaitarrentzat ezarritako gizarte zerbitzuak erregistratu eta zehaztu dira geografiaren arabera.

Era berean, Emakumeen kontrako tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida deritzan beste tresna berri bat deskribatzen da "Tresnak" atalean. Etxeko tratatu txar eta sexu eraso biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundearen arteko Akordioaren (2001) barru sartua delarik; gizartearen parte-hartzeari buruzko informazio teoriko eta praktikoa bateratzen dituen gida hori urrats berri bat da genero indarkeria kentzeko diharduten EHAEko administrazio desberdinen artean koordinazio bateratuagoa lortzeko bidean.

"Kontuan hartu" deritzanak Valentziako Unibertsitateak eta ADEIT Unibertsitate-Enpresa Fundazioak sustatuta etxeko eta genero indarkeriari buruzko 'on-line' masterraren lehen deialdiari buruzko oharra eskainiz ematen du amaiera, eta, era berean, bi tresna berriren argitalpen-laburpena eskaintzen: hurrenez hurren, Emakumeen kontrako etxeko tratu txarrak: Bizkaiko Lurralde Historikoan eginiko ikerketa baten emaitzak, eta emakumeen kontrako indarkeria mota guztiei buruzko ikerketa, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak eta ONUko emakumeen garapenerako Atalak (DAW) eginiko argitalpenak.

Ezin dugu amaitutzat jo ale hau, aldizkari hau irakurtzen duzuen guztiok eskertu gabe: irakurleak, erakundeak, berdintasun-agentek, hainbat motatako elkarte eta kolektibo, politikariak, funtzionarioak, ikerketa-taldeak..., egin-eginean, labur esanda, hiritar guztiak, generoaren kontrako indarkeriari buruzko datuak bidaltzeagatik eta ekimen berri eta anitzak abiabidean jartzeagatik. Ahalegin horretan amorerik eman gabe aurrera egitera bultzatu nahi zaituztegu, argi baitakizue zuen lankidetzari hori eskuratzen jarraitu nahi dugula, hori ekimen baliotsu baita gure aldizkaria edukiz elikatzeke eta gure arteko harremanak sendotzeko.



GAIAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARARTEKOA

Maite Erroi elkarrizketa



Berdintasunaren Arartekoak herritarrak defendatzen ditu sektore pribatuan sexuaren arrazoizko bereizkeriaren bat jasaten dutenean. Zalantzarik gabe, emakumeei ematen die lehentasuna, hauek bizi izaten dituztelako...

[\(+\)](#) Irakurri artikulu guztia

BEHATOKIA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen atlasa:

Bizkaiko Lurralde Historikoa




Orrialde hauen bitartez, Behatokiak produktu berri bat aurkeztu nahi du: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen atlas bat Bizkaiko Lurralde Historikoan diren baliabideei buruzkoa.

[\(+\)](#) Irakurri artikulu guztia

TRESNAK

Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida.



"Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida editatzen du..."

[\(+\)](#) [Irakurri artikulu guztia](#)

KONTUAN HARTU



- NBE: emakumeen aurkako indarkeri mota guztiei buruzko azterlana.
- Inkesta zabala: emakumeen aurkako indarkeria etxeetan
- Etxeko indarkeria eta genero indarkeria: on-line masterra

[\(+\)](#) [Irakurri artikulu guztia](#)



[Inprimitu](#)



[Itxi](#)



Buletin elektroniko hau gure datu-basean zaudelako jasotzen duzu.
Ez baduzu berririo jasotzea, [Komunikatu iezaguzu](#).

Copyright © 2005. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA.

[Aurkezpena](#) | [Gaiak](#) | [Behatokia](#) | [Tresnak](#) | [Kontuan hartu](#)

GAIAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARARTEKOA. Maite Erro Jauregiei elkarrizketa.

Psikologian doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean, eta gizarte-psikologian dago espezializatuta (gizarte esku-hartzea eta esku-hartze komunitarioa). Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren ararteko izendatua izan arte (2006ko maiatzaren 24a) EHUko Psikologia Saileko irakasle titularra eta EHUko Errektore Taldeko ikasleen errektoreordea izan da. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren masterra zuzendu du, beste batzuekin batera, master hori 2001. urtean EHUko Psikologia eta Zuzenbide fakultateetan sortu zenetik.



Baliabideak eta aurrekontuak kudeatzen esperientzia dauka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako planak ebaluatu eta abiarazteari lotuta egon da. Azken hamabi urteetan ikerlanak eta ebaluazio azterlanak zuzendu ditu Herri Administrazioarentzat; besteak beste: Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeentzako ekintza positiboko II. eta III. planen urteroko ebaluazioa eta ebaluazio osoa; Etxean Tratu Txarrak eta Eraso Sexualak Jasaten Dituzten Emakumeentzako Arreta Hobetzeko Erakundearteko Akordioa zabaldu eta gauzatzeko neurrien betetzearen gaineko ebaluazioa; edo Genero indarkeriaren esparruan lan egiten duten EAEko emakumeen elkarten azterlana. Argitalpen akademiko ugari dauka.

Zergatik behar dugu emakumeok ararteko bat?

Berdintasunaren Arartekoak herritarrak defendatzen ditu sektore pribatuan sexuaren arrazoizko bereizkeriaren bat jasaten dutenean. Zalantzarik gabe, emakumeei ematen die lehentasuna, hauek bizi izaten dituztelako zuzenean bereizkeriaren ondorioak: emakume gehiago dago langabezia, %30,1 gutxiago kobratzen dute, lan-kolokatasun handiagoa dute, lanaldia bikoiztu egiten zaie familiako erantzukizunak ere bere gain dituztelako, erabakiak hartzeko lanpostuetarako ez dira kontuan hartzen, jazarpen sexista jasaten dute, komunikabideetan ez dira agertzen emakumeek ezagutzaren hainbat esparrutan egindako ekarpenak, etab. Errealitate hori batez ere sektore pribatuan ematen da maizago eta modu larriagoan.

Ararteko hau emakumeentzat ala berdintasunerako da? Berdintasuna eskatzen duten gizonentzat ere daude irekita Arartekoaren ateak?

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Arartekoa erakunde publikoa da, burujabea, eta Berdintasunaren Legeak sortu du. Izan ere, lege horrek ezarri du Arartekoak tratu berdina

"Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Arartekoa erakunde publikoa da, burujabea, eta Berdintasunaren Legeak sortu du. Izan ere, lege horrek ezarri du Arartekoak tratatu berdina emateko printzipioa betetzen dela zainduko du eta sektore pribatuan sexuaren arrazoizko bereizkeriaren bat gertatzen denean herritarrak egoera horien aurrean defendatuko ditu"

emateko printzipioa betetzen dela zainduko du eta sektore pribatuan sexuaren arrazoizko bereizkeriaren bat gertatzen denean herritarrak egoera horien aurrean defendatuko ditu. Beraz, Arartekoa Berdintasunerako da eta gizonak ere berdintasun hori izan dezakete, gerta daitekeelako batzuetan gizonak ere sexua dela medio bereiztuak izatea. Berdintasuna gizonak ere aldarrikatu behar dute.

Adibidez, gizon batek Arartekora jo dezake bere elkarteko (gastronomikoa, kiroltako,...) estatutuak berrikusteko interesatu moduan emakumeen sarrera edo sustapena mugatzen duten elementuak kendu nahi dituen.

Emakumeek epe laburrera eurentzat zerbait positiboa nahi badute baina hori berdintasunaren aurka badoa, zer gertatuko da? Hau da, esaterako, emakumeen amatasun-baimenak gehitu nahi badira eta ez gizonentzako aitatasun-baimenak, horrela, hasieratik haurraren zaintzan parte hartzera bultzatuz, zer gertatuko horrelakoetan?

Hasteko, oso garrantzitsua da gogoratzea ikerketa batzuen bidez egiaztatu dela industrializatutako herrialdeetako jaiotza-tasa ez dagoela lotuta emakumeen ordaindutako lanaren tasa bajuari; aitzitik, ordaindutako lana duen emakume kopuruaren gehitzearekin batera jaiotza-tasa ere gehitu da.

Bigarren gauza bat: enpresa gehienetan ez dago gizona aitatasun-baimena eskatzera bultzatuko duen suspergarririk. Suedian, adibidez, enpresek soldataren %100eko laguntzak ematen dituzte eta baimen hori lanbideko meritua moduan baloratzen dute.

Eta amaitzeko, arrazoi asko daude emakumeek gizonak baino gehiagotan bultzatzen dituztenak eskubide horri heldzera. Dena den, argi dago erabaki hori soldadari lotuta doala; emakumeek soldata txikiagoa izaten dutenez familiarentzat ekonomikoagoa da lanaldiaren murrizketa.

Gainera, estereotipoak oraindik garrantzitsuak dira eta gizarteak presioa egiten du emakumeak izan daitezen umeak hazten dituztenak; oraindik gauza bitxia da gizona izatea umea hazten duena. Benetako eta egiazko berdintasuna lortu ahal izateko, gizonak modu aktiboan parte hartu behar dute bere seme-alaben hazkuntzan, zaintzan eta hezkuntzan.

"Gizonak emakumeekin banatuko dute boterea eskubide demokratikoa eta gizarte-justizia delako, balio hauek tradizioaren gainetik daudela defendatzen dutelako"

Ez da dagoeneko garaia gizonak, talde moduan, berdintasuna balio gisa defenda dezaten eta indarkeria eta matxismoa inolako disimulurik gabe eta batzuetan gainera harrotasunez erabiltzen duten sexu bereko horiei aurre egin diezaien?

Nire ustez egun gizonak ere defendatzen dute berdintasuna -baina agian ahalkeztasun- balio gisa. Eusko Legebiltzarrak Berdintasunerako Lege bat onetsi zuen -gero Hauteskunde Legeak aldatutakoa- eta horri esker legebiltzarkideen %53 emakumeak dira; datu hori azpimarragarria da. Indarkeriaren aurkako edo prostituzioa indargabetzearen aldeko gizonak ere badaude egun, eta esan beharra dugu gai horiek duela gutxi arte emakumeek baino ez zituztela aldarrikatzen.

Boterean dauden gizonak zergatik utziko diote botere hori emakumei? Arartekoak horren aldeko ekintzaren bat egingo du? Aukera errealista da hori?

Gai hori zaila eta interesgarria da. Historian zehar, boterea eskuratu eta mantentzeak eragin

ditu gatazkarik larrienak eta, beraz, zaila da hori konpontzea. Besteak beste, gizon askok boterearen banaketa "batura zero" printzipio moduan ikusten du, hau da: "zuk irabazten baduzu nik galdu". Baina badago beste printzipio zentzudunago, aberasgarriago eta bidezkoago bat: "zuk irabazten baduzu, biok irabazten dugu". Gizonek emakumeekin banatuko dute boterea eskubide demokratikoa eta gizarte-justizia delako, balio hauek tradizioaren gainetik daudela defendatzen dutelako. Emakumea ere botere-esparruetan sartzen den heinean, egoera hori gizarte osoarentzat zein onuragarria den ikusten dugu. Aukera errealista da, baina horretarako gizarteak aldatu behar denez geldiro doa.

Bestalde, Arartekoak honako zereginak ditu: ikertu, negoziatzeko bideak eman eta gomendioak, aholkuak eta laguntza eman sektore pribatuan sexuaren arabeko bereizkeriaren bat gertatzen denean eta publikoa ez den edozein erakundetan boterea banatzeko bereizkeriaren bat ematen denean.

Berdintasuna bultzatzeko ekimenak egin dira, besteak beste: enpresetan berdintasun planak ezarri beharra, emakumeari aldatu ezin zaizkion aitatasun-baimenen ezarpena eta administrazio kontseilueta emakumeak sartu beharra osaketa bidezkoagoa izateko. Baina mota horretako ekimenen bat sustatzen den bakoitzean patronala eta botere faktikoak berehala jartzen dira kontra. Zein mezu ematen du Arartekoak horren gainean?

Gizarte ordena berdintsuagoaren aldeko ekimenei aurre egiten zaienean, ezagutza enpirikorik ez dagoelako eta iritzi eta sinesmen estereotipatuak daudelako gertatzen da; beste iritzi eta sinesmen batzuk aipatu "batura zero" printzipioan oinarritzen dira gainera. Arartekoak badaki hori gertatzen dela baina bere zeregina da herritarrak sexuaren arabeko bereizkeriaren aurrean defendatzea eta emakumeei eta gizonei tratatu bera emateko printzipioa bete dadin sustatzea Euskadin.

Berdintasunezko mundu batekin amets egin dezakegu? Nolakoa izango da? Ikusiko dugu? Asko falta da heltzeko? Berdintasunaren arartekoa izanda, zein uste duzu direla berdintasuna lortzeko gakoak?

Berdintasunezko gizarte batekin egiten dugu amets, jakina, eta horren alde egiten dugu lan. Berdintasuna lortzeko urte batzuetan betekizun hauek eman behar dira: konpromiso politikoa, baliabide ekonomikoak, prestatutako langileak, aldatzen laguntzen duten legeak eta ezberdintasunak sortzen dituzten egiturak aldatzeko gizartearen konpromisoa. Nolakoa izango da mundu hori? gure erreferentzia Europako iparraldea da, gizarte aldaketaren aitzindariak dira, baina haiek ere oraindik badute zer egin. Zein dira gakoak? bat berdintasuna da. Europak Parlamentuaren 2000. urteko adierazpena parafraseatuz haxe esan behar dut: "gizonek eta emakumeek maila berean parte hartu behar dute erabakiak hartzeko prozesuan, demokrazia bermatu nahi bada gizarte osoaren interesak kontuan hartuz eta behar bezala funtzionatu dezan lagunduz". Gizartearen erdia bagara, erdi hori ordezkari eta botere esparruetan ere egon beharko da. Horretarako bitarteko zuzentzaileak behar ditugu, Berdintasunaren Arartekoa esaterako, eta ekintza positiboak ere behar ditugu. Abiapuntua egungo ezberdintasuna eta menpekotasun eta zapalketa egoerak dira.



Buletin elektroniko hau gure datu-basean zaudelako jasotzen duzu.
Ez baduzu berririo jasotzea, [Komunikatu iezaguzu](#) .

Copyright © 2005. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA.

[Aurkezpena](#) | [Gaiak](#) | [Behatokia](#) | [Tresnak](#) | [Kontuan hartu](#)

BEHATOKIA

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen atlasa: Bizkaiko Lurralde Historikoa

Orrialde hauen bitartez, Behatokiak produktu berri bat aurkeztu nahi du: Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko baliabideen atlas bat Bizkaiko Lurralde Historikoan diren baliabideei buruzkoa. Atlas horrek gai horren analisia egiteko zenbait aldagai biltzen ditu, eta aldagaiok ikusgai egiten dute Bizkaian indarkeria jasaten duten emakumeen beharrei erakundeek zenbaterainoko eta nolako erantzuna ematen dieten.



Emakumeen aurkako indarkeria horien aurkako kultura baztertzailer batean dago errotuta, emakumeei eskubide eta askatasun berdintasuna ukatzen dien kultura batean, eta atlas honek indarkeria horren ondorioei aurre egin eta indarkeria desagerrarazteko politikak, egitasmoak eta baliabideak jasotzen ditu. Horrez gain, arazo honetan esku hartzeko tresna batzuk adierazten ditu, modu koordinatu eta oso batean: batetik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean euskal botere publikoen jarduna orientatu behar duten ildo eta irizpideak egituratzekoak; bestetik, arazoari erantzuteko ahalmena hobetze aldera sortutakoak; eta, azkenik, sexu-indarkeriaren haztegi diren estereotipoak apurtzeko bideratutakoak.

Hortaz, atlasak berdintasunari eta indarkeriari buruz jardunean diren politikei buruzko informazioa ematen du; hau da, erakundeen arteko hitzarmenak aurkezten dizkigu, eta, hain zuzen ere, erakundeak lotzen dituztenak, jarduera zehatzen bidez, emakumeen bizi baldintzak objektiboki hobetzeko neurri eragileak (behar diren egiturak sortu, koordinazio baliabideak ezarri eta erakundeen arteko elkarlana bideratzen dutenak) garatu eta gauzatzeko.

... ikusgai egiten dute Bizkaian indarkeria jasaten duten emakumeen beharrei erakundeek zenbaterainoko eta nolako erantzuan ematen dieten.

Atlasak berdintasunari eta indarkeriari buruz jardunean diren politikei buruzko informazioa ematen du.

duten zerbitzuak, edo babes emateko baliabideen sarea. Baliabide horiek zenbait ezaugarriren arabera deskribatzen ditu: zerbitzua ematen duten lurraldea, jardunean hasi zireneko urtea, zerbitzu orduak, kudeaketa mota eta abar.

Halaber, atlasak zenbait baliabide eta egitasmo lantzen ditu, azken erabiltzaile gisa senarren edo antzekoren baten indarkeria jasaten duten emakumeak izango dituztenak: laguntza psikologikoa eta juridikoa ematen

Atlasak eremu bakoitzean dauden zerbitzuen zerrenda eman eta deskribatu egiten ditu. Horrek aukera ematen du arreta zerbitzuaren hutsuneak eta eskasiak identifikatzeko: zein eremutan dauden emakumeak arrisku egoeran baliabide egokien eskasia dela-eta, zein alderi edo

zerbitzuri eman lehentasuna baliabide gehiago emateko orduan, eta abar.

Atlasaren lehenengo edizio hau hamaika mapek eta horiei dagozkien txostenek osatzen dute, eta, horiek dira, gainera, jarduera eta baliabide arloak osatzen joango diren beste mapa batzuk gehitzeko abiapuntuan. Horiekin guztiekin etengabe eguneratuko den informazio-tresna bat eratuko da aukera emango duena, batetik, egun atlasak dauzkan gaien ezagutza sakontzeko, eta, bestetik, aztergai izango diren arlo berriei ekiteko.

... zenbait baliabide eta egitasmo lantzen ditu, azken erabiltzaile gisa senarren edo antzekoren baten indarkeria jasaten duten emakumeak izango dituztenak.

<<<< Atlas Dokumentuaren esteka >>>>

[URL](#)

<<<< Atlas Dokumentuaren PDFa >>>>



[Inprimitu](#)



[Berbidali](#)



[Itxi](#)

[Hasierako horrialdera itzuli](#)

Buletin elektroniko hau gure datu-basean zaudelako jasotzen duzu.
Ez baduzu berriro jasotzea, [Komunikatu iezaguzu](#) .

Copyright © 2005. BIZKAIKO GENERO INDARKERIAREN BEHATOKIA.

[Aurkezpena](#) | [Gaiak](#) | [Behatokia](#) | [Tresnak](#) | [Kontuan hartu](#)

TRESNAK

Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak ***Emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean jarduteko gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gida*** editatzen du, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiekin batera finantzatzen duena. Dokumentua ***Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren*** esparruan gauzatutako erakundeen arteko lankidetzaren eta elkarrekin batera egindako lanaren emaitza da, eta, zehatzago esateko, ***Erakundeen arteko Talde Teknikoaren Gizarte Zerbitzuen Azpibatzerdean egindako lanaren emaitza***.



